

# ttüpi-ttapa

1996ko apirilak 11 • 179. zenbakia

Elkarrizketa

**Jexus ARZALLUS**

**Nafarroako bertsolarien**

**txapeldun berria**

LARUN

**AZKAINA ALDETIK BIDE BERRIA**

**IREKI NAHI DIOTE TURISMOARI**

# MEBLES AMETS

mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

*Ez galdu denborarik!!*

## PINUAREN HILABETEA

- 135ko ohea
  - Bi gau-mahai
- 48.000 Pta.**



TRESILLOA

**49.900 Pta.**




ALASA

**59.900 Pta.**



TRESILLOA

**94.900 Pta.**



## Hiru hitzetan: Polo. Diesel. Berria.

...orain Sampi Aragonen

**1.656.000** Pta. tik. aitzin



Volkswagen

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepeidea • ☎ 450354 / 450759  
D O N E Z T E B E

## DATUAK.....

❖ Jexus Arzallus da Nafarroako Bertsolarien txapelaren jabe berria, martxoaren 24an finala Goizuetan irabazi ondotik.

❖ 1954an sortu zen Goiatzen eta gaur egun Hendaian bizi da. Bi alaba eta seme baten aita da -bertsotan hasia, hau ere-

❖ 1989an hartu zuen parte lehen aldiz txapelketan, finalera ailegatzea lortuz. Ondoren, 1994a bitarte ez zuen finalean parte hartu, muga ezin baitzuen igaro.

❖ Txapela hamasei urtez kartzelan dagoen anaiari eskaini dio.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
MIREN TERESE HUITZI

## Jexus ARZALLUS: «Nafarroako bertsolaritza osasun onean dago»

### ZER MODUZ TXAPELAREN ITZALEAN?


Txapelarekin ahaztuta nago dagoeneko, hor dago eta kitto. Bazirudien oso zaila neukala noizbait lortzea. Atzetik datozenak bentaja txiki bat izaten dute eta urtetik urtera zailagoa zegoen. Aurten lortu dut eta halako patxada bat ematen dit horrek.

### NOLAKO SAIOA IRUDITU ZITZAIZUN GOIZUE-TAKOA?

Itsu-itsuan egon nintzen nire lanari begira eta lan bat bukatu orduko hurrengoan mentalizatzen. Ez naiz kapaz sentitzen zer maila eman genuen jutzatzeko. Besteek kartzelako lana bukatu zutenean, txapela Estitxu eta nere artean zegoelaren susmoa nuen.

### HOBERA EGIN DU NAFARROAKO BERTSOLARITZAK AZKEN URTEOTAN?

Hori guk esatea askotxo esatea izango da, beharbada, baina uste dut baietz. Dexente aldatu da behintzat eta 1989ko finaleko argazkia eta aurtengoa hartzea besterik ez dago. Oso ezberdina da. Bere lana egin duen belaunaldi bat joan da, ondorengoei bidea u-



tziz eta belaunaldi berria etorri da horien lekua hartzera.

**SORTZEZ GIPUZKOARRA ETA IPARRALDEKO ORDEZKARI BEZALA IRABAZI DUZU NAFARROAKO TXAPELA. ZEIN EZBERDINTASUN SOMATZEN DITUZU BERTSO MUNDUAN HIRU HERRIALDE HORIETAN?**

Gipuzkoa da bertsolaritzaren seaska, indar gehien daukana. Ni ere, gehien bat han egin naiz bertsolari. Iparraldeko bertsolaritzan betikoak daude, adinean pixka bat aurrera doazenak, eta atzetik zer etorriko den ez dago ziurtatua. Hor dago Iparraldeko koxka. Nafarroari begiratuta, bertsolaritza osasun onean dagoela esan daiteke. Lehendik ere Estitxu Arozenak gazteak txapela irabazteko gai zirela erakutsi

bazuen ere, aurten urrats bat aitzinera egin dute. Finalean beste bi gazte egon dira eta finalean sartu gabe gelditu dira Legarreta eta Olaetxea, saio polita eta sufrituak egin ondoren. Estitxu Fernandez da iaztik aurtengora salto haundiena egin duena. **BERAZ, BELAUNALDI BERRIA INDARREAN DATORRELA USTE DUZU?**

Bai, noski. Bertsolaritzari zerbait berria ekarriko diote. Kartzelako gaiaren aukeran ere nabaritu zen.

» «Lehendik ere gazteek txapela irabazteko gai direla erakutsia bazuten ere, aurtengoa beste urrats bat aitzinera egin dute. Saio politik eta sufrituak egin dituzte»

# LARUNERA BIDE BERRIA IREKI NAHIRIK DABIL AZKAINGO KONTSEILUA

**Larun (905 m) Azkaine, Bera, Sara eta Urruña artean dago kokatua. Bertze mendiekin konparatuz, orain arte apenas du autoak igaiteko biderik. Kaskora bat bakarrik, Berako partetik eta 4x4 autoendako. Urte hasieran, ordea, Azkaineko Herriko Etxeak bide berria irekitzeko erabakia agertu zuen, eta baita obrak hasi ere otsailaren ondar aldera. Larun mendia Gune Babestua denez, herritarrak xehetasunak galdetu dizkiote Paueko prefetari eta honek, legez kanpoko direla erranez, obrak geldiarazi ditu.**

TESTUA :

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIAK:

BIXENTE TABERNA

PASKAL OXANDABARATZ

FILIFE LAKARRA

**O**bra honen berri, lehenbizikoz, *Sud Ouest* izeneko kazetan agertu zen urte hastapenean. Azkaingo

Herriko Etxeak Larun alderat bide berria irekitzea erabakia zuela erraiten zen artikulu hartan, oihantzen laguntzeko eta, batez ere, Larunera igaiteko erretzeko Azkaingo hautetsien arabera.

Berrikiago, otsaileko goiz batez, makinak agertu ziren eta bidea irekitzen hasi. Bide berri hau Azkaingo harrobi ondoko aparka-

lekutik abiatzen da *Iturri Ederra* izeneko lekutat. Zati bat arras berria da, lehenengo bide zaharretik kanpo irekia, eta berria den parte hortan, justuki, geldiarazi ditu makinak Paueko prefetari. Aldiberean, oihantzen lana ere geldiaraztea manatu du. Ageri denez, Azkaingo Herriko Etxeak ez ditu eskuratuak Larungo mazelan obrak egiteko legez behar diren baimen guztiak.

## HERRITARRAK KEXATU DIRA

Makinak lanean ikusi bezain abudo bazterrak ha-

rrotu dira Azkain aldean. Kexatu direnen artean Ideki Elkarteko kideak daude, azken hauteskundeetan bozen %40a lortu zituztenak. Filipe Lakarra elkarteko ordezkariak azaldu digunez, «kontseiluak aipatu dituen estakuru eta arrazoi guziekin ez gaude konforme».

## AITZIN-PROIEKTUAREN XEHEZASUN NAGUSIAK

Azkaingo Kontseiluko bileran, martxoaren 16an, Aitzin-Proiektuaren berri eman zuen Anje Luberriaga auzapezak. Han errandakoaren arabera, bidearekin



LARUN GAINETIK BISTA EDERRAK HARTZEN AHAL DIRA. HURBILEKO HERRI ETA XOKOEZ GAIN, PIRINIOKO MENDIAK ETA EUSKAL HERRIKO TA LANDETAKO KOSTAK ERE IKUS DAITEZKE.



batera, muntadura berezi zenbait antolatu nahi dira Larungo mazelean. Hoieta-ko batzuk pottoka hazle eta artzaintzat izanen dira, eta bertze batzuk mendizaleentzat. Baliteke Kaperaki zenbait altxatzea lehen Larun kaskoan zegoenaren gisakoa, eta azkenik, harrespilak (*cromlech*) ere, nolabait apaindu nahi dira.

Dena dela, gogoratu behar da Larungo mazel horrek lege aldetik izendapen berezia duela dituen natur eta kultur ondasunengatik. Horren ondorioz, baimen bereziak behar dira inguru horretan zernahi obra egiteko, eta bideak bezala aitzinproiektu horretako egitasmo guzietan ere baimen hori eskuratu beharko dute gauzatzekotan.


Baimenik ez izateagatik, hain zuzen ere, geldiarazi ditu obrak Paueko prefetak.

## «GEZUR HUTSAK!»

### SALATU DUTE

#### IDEKI ELKARTEKOEK

Filipe Lakarra, Ideki elkarte-ko ordezkariak adierazi digunez, «*pundu batzuetan konforme gira bainan, bistan da, ez denetan. Oihantze hori da bideentzat lehenbiziko estakurua*—dio Filipek—. *Ohartu gira oihantzainek (ONF) ez zutela holako pista zabalik galdetu. Ikusi dugu karta edo mapetan leku batzuetan oihan landatzerik ez dela, eta hain xuxen, bidea bada. Beste batzuetan ONFk ez zuen bide hori abiapuntuan ukitu behar eta ukitu izan da*». Artzainei dago-kionez, «*ez da beharrezkoa ardiak tratatzeko gerizak egitea. Laborariek diotenez, ardiak mendira joan baino lehen dituzte tratatzen. Pottoka zaleek nahi dituzte zerrakura batzuk pottokak tratatzeko, bainan horrek ez du ingurumena funditzen. Beti ere, ikusi behar non eginen diren, ez bederen harrespil- ondoan. Gero, mendizaleak ere aipatuak izan dira estakuru gisa. Bistan da Larun dela mendi biziki ttipia. Jadanik etxola bat an-*



LARUN DA IPAR EUSKAL HERRIKO MENDI TONTORRIK BISITATUENA. IAZ 300.000 PERTSONA BAINO GEHIAGO IBILI ZIREN LARUNGO KASKOAN, HOIETATIK 280.000 LARUNGO TRENAK GARRAITUAK.



*tolatua izan da eta ez dugu ikusten bidea beharrezkoa duenik*». Azkenik, aitzinproiektuaren azken estakurua errefuxatzeko, zera gaineratzen du Filipek: «*Harrespilak dira arras ederrak diren bezala. Ez dugu ikusten zergatik behar diren apaindu.*

Nolanahi ere, aitzinproiektu horretako zenbait puntu-ekin konforme dira. «*Landatzearekin arras ados gira, pottoka zaleena ere ongi dago, artzainek nahi badute leku batean edo bestean ura eman, ura ekartzeko horrek ez du ingurumena funditzen. Orokorki, gehiagorik behar ote den? Gure galdea hor egiten dugu!*» ■

## IKUSPEGIAK



### Manuel IRIARTE

Berako alkatea

Martxoaren 16an Azkaingo Herriko Etxeko bileran hautetsiek erran zute-

nez, Berako Udala Larungo pista zolaberritu nahirik omen dabil, automobilak kaskoraino igaiteko. Berako alkateak, ordea, gezurtatu egin du horrelako asmorik bada- goenik, eta berak dioenez «*Berako Herriko Etxean ez da asuntorretaz deus ere tratatu, ezta hitzegin eta erabakirik hartu ere. Azkaingo alkateak jakinen du zergatik erran duen hori! Beharbada bere defentsan!*».



### Pello IRAZOKI

'Larungo Kayola' Bentakoa

Pello Irazokik erran digunez, prentsa bidez enteratu da Azkaingo aferaz eta ez du idea definiturik emateko. Nolanahi ere, bere ustez «*kantidade aldetik jende kopuru berdintsua etortzen da azken urteotan, trenak ez baitu eramaten ahal gehiago. Orain hiru tren ibiltzen dira, eta iaz erraten zutenez, aurten laugarrena jarriko omen dute*». Urte hobeak eta txarragoak ezagutu dituzte, bainan ez da kezkatzen azken urteotako kopuruekin. Dena dela, pista irekitzea turistentzat mesedegarri litzatekeela ikusten duen arren, mendia zulatzen hasi-ta, itsustuko dela pentsatzen du.



### Beñat AGERRE

Axuria Mendi

Taldekoa. Sara

Azkaingo bide hori «*ahalkegarri da*» bere ustez. Gogor-

tzen du duela 18 urte inguru, Sara aldetik ere bide berria irekitzeko saiakerarekin hauteskundeak egin eta kontrako bozak nagusitu zirela. «*Ez dut konprenitzen, —dio Beñatek— bide hori zertarako den ez baldin bada turismoarentzat. Orain arte oihanera traktoretan gaten ziren, eta holako bidea irekitzen bada, edozein automobil gaten ahalgo da! Saran ere badugu zer salatu, lbantelin egin den bide berriaz, baita Larun mazelan ur-geldirat eramaiten duen zimentazko bideaz ere*».

## Zer dago gibeltik?

Azkaingo bide berriaren Aitzin-Proiektuan espreski horrelako helbururik aipatzen ez bada ere, bidea irekitzearen kontra daudenak beldur dira turismoa dela bide berri horren azken helburua. «*Zendako, bertzenaz!*» diote bertze azalpenik ezin aurkituz. Urrunago ere jotzen dute. «*Orai obra geldiarazita ere, bidea egina da! Urrarazi egin behar litake!*». Hauen ustez «*Larunek balio haundiagoa du honela atxikiz. Masifikazioak, turistentzat ere balioa galtzea ekarriko du*».

EGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.200 ALE

REGISTRATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-  
en. **Publizitatea:** Miren Kar-  
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
Arozena, Joxemanuel Irigoien.  
**Erredakzio taldea:** Pello Ape-  
txea, Juainas Paul, Kristina  
Larraz, Bittori Telletxea.  
**Erredakzioaileak:** Joseba Azpiroz,  
Juan Arozena, Juana Mari  
Larraz, Ainhoa Mutuberria, Iban  
Larraz, Txema Aldabe, Pello Etxe-  
barria, Txema Urroz, Patxi Otxan-  
dena, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
barria, Pablo Mendiburu, Joseba  
Arozena, Alizia Olaizola, Margari-  
te Arozena, Koro Irazoki, Mixel  
Larraz, Jacqueline, Elixabet  
Larraz, Garbiñe Maiz, Oskar  
Larraz, Alberto Sansiñena,  
Juan Arozena, Estina Boan.

**Erredakzioaileak:** EHNE Nafa-  
za, Patxi Lasa, Mikel Bezun-  
arria, Joxe Javier Etxeberria,  
Estina Zabala...

**Erredakzioa:** Graficas Ona.  
**Erredakzioaileak:** *tipi-ttapa* ez du bere gain har-  
tu derrigorrez, aldizkarian adie-  
tatu erranen eta eritzien eran-  
kizunik.

**Kunde Laguntzaileak:** Bera,  
Arozena, Goizueta, Areso, Baztan,  
Larrazubi, Zugarramurdi eta  
Arozena udalak, Bortzirietako  
Aroskara Mankomunitatea,  
Aroskara Zerbitzu Mankomu-  
nitatea, Zugarramurdiko Akelarre  
Aroskara...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Gazteak eta asti librea

#### Gazte antolaketa ezin- bestekoa da helburu eta ardurak finkatzeko



Bazilango  
Gazte Asanblada

Asti librea bete-  
tzerakoan, argi  
eduki behar du-  
gu, gu izan behar dugula ar-  
datz eta bultzatzaile. Oinarri-  
tzat hori hartuta, argi dago, on-  
gi pasatzea ezinbertzekoa de-  
la, horretarako hainbat tailer,  
kontzertu, hitzaldi, afari anto-  
la daiteke. Ezin dezakegu ahan-  
tzi, gazteok gizarteko atal bat  
osatzeko dugula. Ondorioz, gi-  
zartean aurki ditzakegun hain-  
bat arazoren aintzinean gure  
ikuspuntua erakutsi beharra  
dugu, beraiengatik arituz, oku-  
pazioa, intsumisioa... Ikuspun-  
tu politiko batetik baino gi-  
zarteko partaide garenetik.  
Orain arte egindako ikasketak  
ederra dirudike. Bertan aipa-  
tutako guztia aitzinera erama-  
teko, ezinbertzekoa da gazte  
antolaketa bultzatzea eta gaz-  
teok gure azpiegitura finka-  
tzea. Honen barnean gazte lo-  
kalen beharra arazo larri be-  
zala ikusten dugu, hala nola  
autofinantziazioa eta gizarte-  
ak jartzen dizkigun trabak.  
HERRI bakoitzak bere proble-  
matika dauka. Irakurketa hon-  
en ondorioz jokamoldeak ez-  
berdinak izan daitezke tokian  
toki. *Herri bat gaztetxe bat.*

#### Ez al da gehiegi ikasle, kirolari, musikari eta dantzari ona izatea?



Aroceli MARTIN  
Irakaslea. Bera

Gazteen artean  
hiru talde des-  
berdintzen dira.  
Lehenengo taldean ikasketaz  
aparte deus ere egiten ez du-  
tenak ikusten ditut. Biga-  
rrenean gehienez bi ekintze-  
tan aritzen direnak daude, ki-  
rol batean eta beste zerbaite-  
tan normalean. Hau hagitz on-  
gi iruditzen zait, ikasketak eta  
kirolak oso ongi osatzen du-  
telako gazteen formazioa.  
Hirugarren taldean berriz,  
"haurtzaroen errazago ikasten  
da" esaldia hitzez hitz hartu  
dutenak daude, ez dira gutxi  
(herena izan daiteke); eta alde  
batetik bestera korrika pasa-  
tzen dituzte egunak. Hau ba-  
tez ere herri handietan ema-  
ten da (Elizondo, Doneztebe,  
Bera eta Lesaka). Gaztetxo ba-  
tentzat, ez al da gehiegi es-  
katzea ikasle, musikari, kirol-  
lari eta dantzari ona izatea, al-  
di berean? 12-15 urteko nera-  
be bati gehiegi exigitzeagatik,  
ez ote da "bidean" erreko, az-  
kenean dena pikutara bidaliz?  
17-18 urteko ikasleek nekatur-  
rik daudela esaten didatene-  
an, kasu batzuetan behintzat,  
ez naiz harritzen. Ni ere hala  
eginen nintzateke!

#### Ez da berdin herri handietan eta herri txikietan



Angel M<sup>o</sup> LAZKANO  
17 urte, ikaslea. Urrotz

Asti librearen  
kontua ez da  
berdin izaten  
herri handietan eta herri  
txikiagotan. Urrotz eta hola-  
ko herrietan nere adineko  
guziak, ahal badute behin-  
pin, lanean aritzen gaituk.  
Etxean ere, beti izaten da  
zerbait egin beharra.  
Generalean horrela izaten  
da. Gero, nire kasuan, errate-  
rako, bertze batekin herria-  
rentzat lanean aritzen gaituk  
larunbatetan eta, plantazio-  
an edo garbitzen edo...  
Bertzalde, ziudadetan eta he-  
rri handiagotan, lan kontu  
hori ez diat hainbertze ikus-  
ten. Hoietan, asti librea  
estudiatzen, edo kirolen bat  
egiten pasatuko ditek gehie-  
nek.  
Bertzelakoan, ikasten ari de-  
nak ortziral arratsaldean egi-  
ten dizkit eskolako lanak eta  
larunbat arratsaldea eta  
igandea, gehienak, hor barna  
ateratzeko aprobetxatzen  
diagu, Doneztebera, Ultza-  
ma aldera, Iruñera...

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**BOTA BERTSOA**



**Txapelari**

**Jexus ARZALLUS**

Neurria: Hamarreko haundia

*Nik inoiz ere ez nuen egin hori janzteko hainbeste barrena beti izanagatik bere itzalaren eske txanda faltikan izango denik zorionez ez dut uste aurten indartsu ikusi ditut zenbait berri edo gazte amets guztien neurrikoa da eta saiatu zaitetze.*

*Bixitatuak ditu Ahetze, Urepel eta Heleta lholditik pasaz gero joan zen Lesaka alde horreta Errazkin ere ezagutzen du hurren Arraiozen festa erregin baten buru gainerik dator Hendaira iheska jarrai beza haruntz ta honuntz mugak hausten dabil eta.*

**IRAKURLEAK MINTZO**

**Homosexualitatea**

TTIPI-TTAPAKO 176. zenbakian merkatu ttikiko agurretan honako iragarkia agertu zen: 24 urteko mutil batek beste mutil bat bilatu nahi du harremanetarako. Jendeak irakurri zuen eta... a ze nolako solasaldiak sortu zituen. Batzuk gaizki solastuz "marikontzat", bertze batzuk kottileatzen, nor ote den jakin nahiez... A ze nolako morboa sortu duen.

Jendeak pentsatzen du bakarrik 2 edo 3 homosexual garelako. Baztanen, eta hori ez da egia. Baztanen "ulertzen" dugu pila bat bainan gehienok gure homosexualitatea izkutan bizi dugu. Aizu! mutil, neska, zure kuadrillan, eskolan, lanean... duzun kolega hori, ziur al zaude heterosexuala dela? Batzuk neskekin enrollatzen dira bere homosexualitatea gordetzeko. Erraten dutenez, gizar-tearen %10a edo gehiago homosexuala da. Datu hau egia bada, atera kontuak... Nik pentsatzen dut %10 baino poliki gehiago garelako harreman homosexualak izaten edo noizbait izan ditugunak. Herri ttiki hauetan nahiko kontu latza da homosexualitatea eramatea. Zertako homofobia hori? gauza guztien gainerik, ez al gara pertsonak? Ia 2000.

urtean, eta horrelako eskandaloa iragarki batengatik. Nori axola dio bakoitzak zer egiten duen bere gorputzarekin. Maitatu eta utzi maitatzera.

BAZTANGO "GAY" GAZTE BAT.



**Jose Javier Urtxegi, Igantziko EAJ-PNVko zinegotziari erantzuna**

Gure harridura adierazteaz gain, Igantziko Udaleko EAJ-PNV taldearen ordezkari gisara, Jose Javier Urtxegi Huizik zenbait komunikabidetara bidalitako gutuna dela eta, gu ere zerbait argitzeko gauza izanen garelakoan gaude.

1- Elkarri-ri dirulaguntza emateko orduan, zaila egiten zaigu PNVko zinegotzien abstentzioa ulertzea, komunikabideetara bidalitako gutunean nabarmenki agertu baitzaizkigu horren kontra. Are zailagoa plenoan deus aipatzen ez badute.

2-Bi "zinegotzi HBzale" faltatu omen ziren egun hartako plenora, eta zuek diotuzenez, izugarri susmagarria da hori. Jakin ezazue, bertzerik gabe, bortzak adostasun osoa dugula gai honi dagokionez, eta gainera, zuek susmopean pa-

ratu duzuen zinegotzi horietako bat Elkarriko kide eta aportante dela.

3- Ez diegu guk kanpoko alderdi politikoei inongo konturik eman beharrik, ezta Herriko Etxean honetaz edo hartaz zer bozkatu behar dugun galdetu beharrik ere. Zuek ordeza, ezin gauza bera erran.

4- "Gai politikoei" ez omen dute Herriko Etxean lekunik. Zeinek sartu ditu lehenbiziko aldiz sigla politikokoak Igantziko Udaletxean? Politikoei al dute bakegintza eta giza eskubideen defentsaren eskusibitatea? Denok landu beharreko gaiak dira gure ustez.

5- Gai hau komunikabideetan eztabaidatu beharrean, hobe zenuten plenoak erabiltzea, orain arte inork ez baitzue edozein gaitaz duzuen eritzia emateko eskubidea ukatu eta. Ziur gaude herriaren eta gure harreman pertsonalen onerako izanen litzatekeela.

JUAN JOSE TXOPERENA  
(IGANTZIKO ALKATEA)  
HERRI TALDEAREN IZENEAN  
ENA: 72.645.446



**SEAT Audi VW**

**GELTOKIAK, S.L.**

**100 ibilgailu baino gehiago**

**Aukerako ibilgailuak**

- Mendiko autoak
- Turismoak
- Auto komertzialak

BERA (tunelaren ondoan) • ☎ 908.779356

**ALZURI**

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Herria 96-III-21

«Formula bitxi bat asmatu zuten eta, ondorioz, Nafarroak Estatuari dirua eman beharrean, Estatuak eman zion Nafarroari. Horregatik izan zuten nahi adina diru Urralburu, Aragon eta horiek»

**Patxi ZABALETA**  
Leitzako parlamentaria  
Nafarkaria 96-III-29

«Pilotari moduan nuen helburua zen profesio-naletara pasatzea»

**Asier OLAIZOLA**  
Goizuetako pilotaria  
Egunkaria 96-III-21

◆ **Aresoarrak setatiak?**

❖ Beno, hemen ere bai denetarik dago.

◆ **Zein da gustuko duzun urtaroa?**

❖ Udaberria.

◆ **Eta hilabeta?**

❖ Abuztua.

◆ **Ezagutzea gustatuko litzaizukeen toki bat?**

❖ Ipar Amerika.

◆ **Arazo bat duzunean, norengana joaten zara?**

❖ Arazoa nolakoa den...

◆ **Nori diozu beldurra?**

❖ Heriotzari.

◆ **Oraindik bete ez duzun nahia?**

❖ Ez daukat.

◆ **Gustoko dituzun bi lanbide?**

❖ Artzaia izatea gustatuko litzaidake, denborapasa bezala, langile ona ez bainaiz.

◆ **Zer eskatzen diozu bizitzari?**

❖ Osasuna, gutxienez larogei urteak bete arte edo.

◆ **Eguna edo gava?**

❖ Eguna, eguna... Gava iluna da.

◆ **Hire buruari galdera bat?**

❖ Ez zait ezer jaiotzen...



**Joaquin BARANDARAIN**  
Aresoko bake epailea

**BOAN**  
TAILERRA  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

**AHORRO-BERRI**

janaridenda

Legia 4 • BERA

*Ireki berria*

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA



**KIROLAK ZELA**

Altzate 6, ☎ 63 05 98  
BERA



**LABE ZAR**

☎ 631076 • BERA

**DROGUERIA MOLINERO**



• DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40  
**BERA**

*Errekalde ostatua*

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



**Bera**

## 'Gazte jokoak' datozen borts asteburuetan burutuko dira

Kirola, kultura eta ingurugiroa zaintzeko probak egin beharko dituzte zortzi eta hamar lagun bitarteko taldeek

KRISTINA BOAN

Apirilaren 20an hasi eta borts larunbatez, 15 urtetik goitiko neska-mutilei zuzendutako hainbat ekitaldi burutuko dira Gazte Jokoen. Lamixine BAT eta Gure Txokoak, Udalaren laguntzaz antolatutako joku hauetan 8-10 laguneko taldeak osatu behar dira, hauetatik bi beratarak ez izatea onartzen dute antolatzaileek.

### KIROLA, KULTURA ETA INGURUGIROA

Lehen proba, erran bezala, apirilaren 20an izanen dute, arratsaldeko 8,30etatik aitzinera egingen den inaugurazio besta eta *eski lehorrean* probarekin. Apirilaren 27an mural lehiaketa burutuko da. Iamoteneako paretetan. Maiatzaren 4an, leku berean, herriko 'bitxikeri' kulturalak ezagutzeko Jinkana Kulturala egingen da. Maiatzaren 11n ingurugiroa zaintzeko au-



Kepa Arretxea zenaren emazte eta seme-alabak omendu zituzten Berako pilota txapelketako finalak bukatu ondotik Arg.: Aitor

kera izanen dute partehartzaileak, goizeko 9etan Iamoteneatik abiatuta zabor bilketa egingen baitute mendi eta erreketan. Gero bazkalurrekoa izanen da. Maiatzaren 18an, azkenik, talde bakoitzaren parodia eta bukaera besta izanen da Lamixine BAT taldearen ikuskizunarekin. Akabatzeko, partehartzaileak afari batean bilduko dira.

### Zubia ez botatzea eskatu dute Alkaiagako bizilagunek

Alkaiagako hainbat bizilagunek trenbide zaharreko zubia ez botatzea eskatu diote Lesakako Udalari. Idatzian diotenez, "zubi horretan barna, ia ehun urtez, hainbat laborantza lan egin dira eta horien oroimenez, monumentu bezala mantentzea eta errespetatzea eskatzen

dugu". Etorkizunera begira, "lanera kotxerik hartu gabe joateko eta gazteek egin behar diren berdegunetara igarotzeko garrantzitsua litzateke zubia bere hortan mantentzea" bizilagunen ustez. Afera honen inguruko informazioak jaso ez dutela eta kexu ageri dira alkaigarrek.

*ttipi-flash*

### ❖ Beplast

enpresak sortzen duen soinua eta Txantreren pabilioian egin behar den enpresa berria dela eta, Lanz anai-arrerek Arau Subsidiarioak aldatzea eskatu dute. Eskari honi ezezkua eman dio udalak, sortzen den soinua neurrian barnean dagoela uste baitu.

### ❖ Antzerki

**aurre-estrenoa** Lamixine Berako Antzerki Taldeak, "Ya ves que preciosas están las petunias" antzeslanaren aurre-estrenoa eskainiko du larunbat honetan, apirilak 13, arratseko 8etatik aitzinera Kultur Etxean. Hemendik hila-bete batzutura estreno ofiziala egingen dute, emanaldia euskaraz ere eskainiz.



**ZALAIN**  
JATEETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA


Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**

**SAROB**  
**okindegia**



**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**



*Leandro*  
**OYARZABAL**  
*Jauna*

**Gure Txokoa** elkarteko Zuzendaritza Batzordeak Leandro Oyarzabal jaunaren heriotzak ekarri duen samina eta tristurarekin bat egiten du.

Era berean, bazkide honekiko, **Gure Txokoa** elkartearen sortzailetako bat eta lehendakaria izan zenarekiko miresmena eta eskerrona adierazi nahi du.

**55 urtez tinko Gure Txokoarekin egoteagatik, mila esker Leandro.**



**GURE TXOKOA**



# Galiziako ibilbidea eginen du Iraingo 'Eskola ibiltariak'

Aprilaren 23tik 29ra lurralde horretako ohitura eta kulturak ezagutzera joanen dira seigarren mailako ikasleak

AITOR AROZENA

Nafarroako Gobernuaren deialdiari erantzunez, Irain eskolako 6. mailako ikasleek Goizargi irakaslearekin 'Eskola ibiltariak' programan parte hartuko dute apirilaren 23tik 29ra. Galiziako ibilbidea burutuko dute eta bertako ohiturak, lurraldea eta kultura ezagutuko dituzte. Bertzeak bertze, Lugoko Mariña eta lautada, Santiago bidea, A Coruña, Herkulesen Dorrea, Rias Baixas eta Altas, Betanzos... bisitatuko dituzte.



Martxoaren 20, 21 eta 22an Xorroxin irratan zuzenean aritu ziren Irain eskolako neska-mutiko guztiak. Joan den astean berriz, Tantirumairu ikastolakoak aritu ziren

Argazkia: Aitor

## EKITALDI AUNITZ

Bertze hainbat ekitaldi egin dituzte hila-beteotan Irain eskolan. XII. Ipuin, Komiki eta Bertso lehiaketa burutu dute eta 5. eta 6. mailako ikasleek bi irakasleekin batera, XII. Ipar Ski kanpainan parte hartu dute Isaban. Irratiaren munduan ere lehen pausak eman dituzte; martxoaren 14an Euskadi Irrati-

koak joan ziren eskolara 'Maritxu berritsu' programarako grabaketa egitera. Martxoaren 20, 21 eta 22an, berriz, Xorroxin irratan zuzenean aritzeko aukera izan zuten. Martxoaren 27an, azkenik, Vicente Madoz psikiatrak "Kontzientzia moralaren garapena"ri buruzko solasaldia eman zuen.

## Ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du ikastolak

Tantirumairu ikastolak hamahirugarren aldiz antolatutako ipuin eta komiki lehiaketara lanak aurkezteko epea apirilaren 16an bukatuko da.

Lehiaketa sei eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoek parte hartzen ahal dute. Ipuin

lehiaketan, 1-2. mailakoek orrialde bat berte beharko dute guttienez, 3-4. mailakoek orrialde t'erdi eta 5-6. mailakoek bina orrialde, guztiak gai librean. Komikizaleek seinena biñeta egin behar dituzte guttienez, gai librean hauek ere.

ttipi-flash

## Nerea Iriarte

17 urteko judoka le-sakarrak Gipuzkoako judo txapelketa irabazi du senior mailan. 19 urtez behitiko mailan, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuen, bere erranetan lasaiago aritu zelako maila nagusian. Euskadiko sub-19 txapelketan ere bigarrena izan zen eta sektorean irabazle suertatu zen.

## Batzokiaren

aitzinean lehergai-lu itxurako kutxa bat agertu zen martxoaren 28ko goizaldean eta guardia zibilak leher-tarazi zuen. PNVK gertaera salatu du, mehatxu berri badea uste baitu.

## Udal artxiboa

ordenatzeko diru-laguntza eskatuko du Udalak.

**ORBELA**

gimnasioa

Squash • muskulazioa • sauna • hidromasai bainera

☎ 637950 • LESAKA



☎ 627542

bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

**LEGARRA**

Legarrea, 9

☎ 63 70 30

LESAKA

☞ **PLASTIFIKAZIO**

**ETA FOTOKOPIAK**

(Kopuruaren arabera  
prezio bereziak)

☞ **LIBURU ETA ALDIZKARI**

**AUKERA ZABALA**

Larunbata eta  
igande goizetan  
irekia

**EROSLE**

LESAKA

Kalitate-prezio arteko  
orekarik hoberena

**Frexkuena  
zugandik  
hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

**Ettxalar**

# Noiz hartuko du Gobernuak bere gain Zugarramurdi eta Baztanerako bidea?

Ez du horretan gasturik egin nahi

**PELLO APEZETXEA**

Zugarramurdiko bidean ze seinale paratu beharko lirakeen galdetu dio Udalak Gobernuari. Honek bere kontseilua eman dio, ibil daitekeen pisuaren mugapen seinalea paratzeko, ardatzeko 5,5 tonatakoa ezin dela gainditu, alegia. Hori bat. Bigarrena, berriz, Jauregieta karrikan, eta honen akaberan bereziki, 2,70 metrora bidea estutzearen seinalea. Iduri duenez, kontseilua bai baina hori betetzeko sosa emateko ez dago hain prest Gobernuak. Zergatik? Gobernuak ez duela bidea berea bezala ikusten, Udal bidea eta Udalaren gain dagoena bezala baizik. Hala ere Udalak galdetu dio.



Udaberriarekin baratzak dei egiten du eta emazteak da, gehienetan, erantzuten duena

Argazkia: PELLO

## Ingurugiroa zaintzeko aginduak

Azienda pilatzeak zikina ere pilatzea dakarrenez, zikin horrek inguruko lur eta uretan kalterik ez eragiteko begiratu beharra go-

goratu du Gobernuak, pirutegiak direla eta. Lantegiak eraiki eta antolatzeak maiz sortzen ditu horrelako proleak. Depuradorak paratzea aipatu dute Herriko Etxean, aterabide izan daitekeena.

## Herriko Etxe zaharraren moldaketa

Aspalditik etxe hau moldatu beharra dago, eta behin baino gehiagotan eskatu zaio diru laguntza Gobernuari. Lehen teiltua berri-

tzea pentsatu bazen ere, etxearen egitura bera eta pilareak ere berri beharra zela jakiteak teiltuarena gibelararazi zuen. Orain berriz eskatu zaio Gobernuari laguntza.

## Saihesbidearen bitxikeriak

Udalak nahi duen bidearen hobetzea Gobernuak ez duela onartzen iduri du. Ez, ordea, ez duela hainbertze gastatu nahi, gastu haundiagoko obra egin nahi duela baizik. Udalak nahi duena 20-25 milioiz egiten ahal bada, Gobernuak 100 milioiko lanetan sartu nahi luke, bideari errepide nagusiaren zabaldua emanez. Horrek, ordea, kalte handi samarrak eragingen lituzke.

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**GRUPO**  **ZURICH**  
**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**BEINTZAko OSTATUA**  
Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - **LESAKA**

**HERRIKO OSTATUA**  
**latetxea**  
**SAGARDOTEGI MENUA**  
*Tronizoa sagardoan egina*  
*Bakailu Tortilla*  
*Idi Truleta*  
*Gasna, membrilloa eta intraurrak*  
*Nahi den sagardo guztia*  
**4.000 pezeta bikotea**

☎ 635290  
**ETXALAR**

**F. MARITORENA**

Baztan, Bortzirak eta Malerrek an egiten dugu

**Mendi eta jardin garbiketak**

☎ 63 11 99 - BERA

**Igantzi**

# Objetoreek herrian bertan egiten ahal izanen dute ordezeko prestazioa

Zarautz eta Hondarribian egingen dira aurtengo haurren kanpaldiak

**OSKAR TXOPERENA**

Gai garrantzitsuetaz erabaki behar izan zuten zinegotziek azken plenoan.

Bertzeak bertze, 1995ko kontuak onartu ziren, PNVko zinegotzien abstentzioarekin eta 15 egunez jende aitzinean egonen dira ikusgai.

Guraso elkarteak ski-kanpainarako eskatutako 28.000 pezetako dirulaguntza ere ematea erabaki zen ahobatez.

Arau Subsidiarioei dagokienez, zenbait aldaketa onartu ziren. Hilabete batez jendearen aitzinean paratzea erabaki zen, oraingoa ere ahobatez.

Guatemalako zenbait herritara botikak



**Hilabeteko epea paratu du udalak jendeak Arau Subsidiarioetan egindako aldaketak ikusteko eta, behar izanez gero, erreklamazioak egiteko.**

Arg.: Oskar TXOPERENA

bidaltzeko Askapenak egindako eskaerari buruz, 50.000 pezeta ematea erabaki zen, PNVko bi zinegotzien abstentzioarekin. Batak, nahiz eta konfor-

me agertu, herrian behar duen norbaiti ematea egokiago ikusi zuen, eta bertzeari, hobeikiago iruditu zitzaion dirulaguntza hori biltzeko herrian kan-

paina bat egitea.

Hurrengo puntua ere mamitsua izan zen, Justizia Ministeritzak bidalitako idatziaz erabaki behar izan baitzuten. Bertan, Igan-

tziko objetoreek ordezeko prestazioa herrian bertan egin ahal izatea eskatzen zuten. Soldaduskaren ordezk bertze zerbitzu bat egin behar izateari buruzko baloraziotan sartu gabe, nahi duten igantziarrei ordezeko prestazioa herrian egiteko aukera ematea erabaki zuten ahobatez.

## **Haurren Kanpaldiak**

Aurtengo kanpaldien egunak erabakita daude dagoeneko. Ttikienak, haur hezkuntzan daudenak, Zarautzera joanen dira maiatzaren 20 eta 21ean. Lehenbiziko mailatik bortzgarrena bitartekoak, Hondarribian izanen dira ekainaren 3tik 5a arte.

**XATURETXEA**



**JATETXEA**

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA



**EKAITZA kafetegia**

**GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA**

Plaza Berria, 13  
948 - 62 75 47  
**LESAKA**

Lagunekin  
elkartzeko  
toki egokia



**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
**LESAKA**



# ORDOKI ALTZARIAK

**Estilo guzietako mogleak**

*Kalitatea prezio egokian*

*35 urteko esperientzia zure zerbitzura*

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mogleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrirra eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Mogle zaharrak eta zaharberriak

**ERAKUSKETAK:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
**SALMENTAK:** Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**


# Mozorroen bestako afarian 95 lagun elkartu ziren

Rafael Errandonea herriko pilotaria, Nafarroako eskuz banakako txapelduna suertatu da jubenil mailan

**Araniza**

GARBIÑE ETA ELIXABET

Martxoaren 23an, mozorroen besta ospatu zen. Aterpen egin zuten afaria lautanhogeita hamabortz pertsona joan ziren, horien artean mozorroak izandakoak, gauregun-goak eta beraien neska edo emazteak. Hagitz giro ederra izan zen herrian gau horretan. Plazan Cristina eta Amaiak ederki alaitu zuten giroa. Erran behar da baita, besta ospatu aurretik polemika ttiki bat sortu zela gai honen inguruan. Aurreko alean agertu zen bezala, mozorroek egitarauan ohar bezala paratu zuten: "mozorroek emazte edo emaztegairik ekarri nahi badute afaltzera,



*mahai ezberdinetan afaldu beharko dute, nahiz eta dantzaldian arrimatzeara uzten den".*

Herriko neska gazte talde batek eskutitz bat plazaratu zuen ohar horren aurka. Bertan emakumeen papera kuestionatzen zen eta mozorroen emakumeekiko jarrera salatu. Mozorroak, berriz, karta horretan agertzen zenarekin haserre eta kexu agertu ziren.

**Arantzako bazterrek bisitatzea eta euskara lantzeko intentzioarekin hainbat jende etortzen da, batez ere Aterpeko albergera. Aste Santuan ere jende ugari etorri zen bisitan**

## Suteak

Martxoaren 26an, arratsalde sutea izan zen Bagazelariko inguruetan, Aientsa auzoan. Ziaurtxikiko pinadia ez omen da, halere, erre eta sua Aroztikobordako ametz eremuan sartu eta bi hektarea t'ardi erre zituen.

## Rafael Errandonea Nafarroako txapeldun

Rafael Errandonea, Arantzako pilotari gaztea Nafarroako eskuz banakako txapelketan garaile suertatu zen jubenil mailan, finala Chafferi irabazi ondotik. Finala Iruñean ospatu zen martxoaren 17an eta 18-14ko emaitzarekin nagusitu zen arantzarra.

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua


**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55  
BERA

## ttipi-ttapa

## Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.  
Den-dena eskeintzen dizu!



### ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Bonaventure
- Marithe François Girbaud
- Replay
- Diesel
- Guess
- Zone

### GONBIDATU ETA GIZONGAIËNDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

**Malerreka**

## Sunbillako Kultur Asteburua arrakastatsua suertatu zen

Bertso afarian, mus txapelketan, gaupasan eta marrazki lehiaketan partehartze haundia izan zen

IXABEL ETA JOSUNE

Antzakaitz kultur taldeak Ulibeltzak elkartarekin batera antolatutako Kultur Asteburua arrakastatsua suertatu zen eta hiru egunak giro ederrean pasatu ziren. Ortziralean bertso afaria hagit animatua izan zen, guztira 70 bat pertsona elkartu baitziren.

Larunbatean, Pello Zabala eguraldi gizonak eguraldiari buruzko hainbat bitxikeria erakutsi zituen. Berak erran zuenez, gainera, maiatzean hotza heldu omen da. Gaupasan 300 bat pertsona sartu ziren eta reggae eta mexikarrak dantzatzuz, ordu tikiak errex ailegatu ziren. Halere, igandekoa izan



Martxoaren 28tik aitzinera autobusak pasatzen ahal dira KARRIKA Nagusitik. Lanek, ordea, oraindik aitzinera segitzen dute

Karmele

zen egunik ederrena. Goizeko mus txapelketan hogeik bikotek parte hartu zuten. Lehenengo saria Prudencio eta M<sup>o</sup> Jesus aita-alabek eraman zu-

ten. Arratsaldean, berriaz, haurrentako marrazki lehiaketara 40 lan aurkeztu ziren. Lehenengo sariak Julen, Jabier eta Mirianek eskuratu zituzten eta

lanik originalenak Unaitxo eta Igorrek egin zituzten. Akitzeko Shanbu antzerki taldeak antzeslan ederra eskaini zuen, haurren gozamenerako.

### Kontzertuak Fondan

Apirilaren 13an King Mafrundi arituko da. Apirilaren 20an Nahitanahiez etorriko da eta apirilaren 27an Otsondo 602, Pottokaren talde berria. Kontzertu guztiak gaueko 11ak aldera hasiko dira.

### Autobusak

Martxoaren 28tik aitzinera autobusak pasatzen ahal dira KARRIKA Nagusitik. Lanak akitzeko oraindik zerbait falta da. Komunak berritzen ari dira eta zubi berriaren ondoan, patxadan egoteko mahaiak eta aulkiak egiteko asmoa dago. Azera edo espaloiak ere egin dituzte eta udalak kotxeak gainean ez aparkatzea eskatu du.



**Lizun**

**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

## SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estruktura eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS



## TELLETXEA MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

**Doneztebe**

# 243 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Musika Eskolako Patronatuak berriz, zortzi milioi baino gehixeago izanen ditu sarrera-irteeretan

**TXEMA ALDABE**

243.459.723 pezetakoa izanen da aurtengo Herriko Etxearen aurrekontu arrunta. Honeri, musika eskolako udal patronatuaren 8.066.984 pezetako aurrekontua gehitu behar zaio, guztira 251.526.707 pezetako dirutza osatuz.

**94 MILIOIKO INBERTSIOAK**

Gastuei dagokienez, aurtengorako aurreikusitako diren inbertsioek 93.906.604 pezetako dirutza eramanen dute. Lanik haundienak, piszina eta Intzarkardiko parkea moldatzea, kanposantuan 92 hilobi edo nitxo egitea, eskonbrera eta San Migel auzoko bidea egitea izanen dira. Bigarren kapitularik garrantzitsuenak soldatena izanen da, Herriko Etxean 41.248.000 pezeta eta musika eskolako patronatuan 6.151.195 pezeta erabiliko baitira. Transfe-



Aurtengo aurrekontua onartu du Udalak

Argazkia: Josu INZIARTE

rentzia arruntetan berriz, ia 24 milioi gastatuko dira.

Diru-sarrerei dagokienez, haundiena transferentzia arruntan bidez ailegatuko da (71.659.683 pezeta) eta Herriko Etxeko kuttetan subentzioen bidez 51.813.989 pezeta sartuko dira. Zerga eta tasen bidez ia 74 milioi ingresatuko ditu Udalak.

## Igerilekuaren moldaketa berehala hasiko da

Ekainaren hasierako astean akituak izan behar dute zuzenbidean piszinaren moldaketa lanak. Piszinaren ondoko berdegunea haundituko da, bertan egoteko leku gehiago egon dadin, aldagelak egiten dira eta piszina eta fron-

toiarenean kioskotaberna bat eraikiko da, pilotalekuaren aldetik zein bertetik erabili ahal izateko. Lan hauen kostoa ia 40 milioi pezeta ingurukoa izanen da eta Nafarroako Gobernua erdia ordaintzeko prest azaldu da.

*ttipi-flash*

- ❖ **Ipuin kontalari** baten saioa izanen da apirilaren 22an, astelehena, arratsaldeko 3,30etan zinean eskolako haurrentako. Kontalaria Virginia Imazentaldekoa da eta euskal mitologiari buruzko ipuinak kontatuko ditu.
- ❖ **Doneztebeko Koralak** martxoaren 30ean zinean egin zuen bere aurkezpena.
- ❖ **Zinemaldia** 95-96 garaia martxoaren 31n akitu zen. Emanaldiek sortzen dituzten galerak ikusiz, ez dago ziur datorren urtean emanaldiirik izanen den.
- ❖ **Euskal Kantuzaleen** elkarteari 50.000 pezeta eman dio udalak Haur Kantari txapelketaren dela eta.



**SANTAMARIA**  
Jatetxea

Obra irauten duten bitartean sarrera gibelego aldetik.  
Asteburuetan itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Elizagibela © 451849

- ✓ Pintxoak
- ✓ Bokatak
- ✓ Hanburgesak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Patata bixiak
- ✓ Patata presituak

Igandetan goizeko 6etan idekia bokadilloak... ematen ditugu

*Giro eta musika onaz gozatzeko*

**MariCruz**  
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

**Malerreka**

## 97 milioiko aurrekontua izanen du Elgorriagako udalak

Inbertsiorik haundiena ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanetara bideratuko da

TTIPI-TTAPA

97.091.999 pezeta-ko udal aurrekontu arrunta onartu du Elgorriagako Herriko Etxeak. Inbertsioei dagokienez, 74.173.914 pezeta gastatuko dira aurtengo aurrekusi den lan bakarrean, ur-hornidura eta saneamendu sarea berritzen, alegia. Langilegoa ordaintzeko milioi t'erdia eskax erabiliko da eta zebitzu eta ondasun ezberdinak erosteko, berriaz, 6.865.142 pezeta.

Diru-sarrerei dagokienez, Nafarroako Gobernutik 55.638.578 ailegatuko dira subentzietan. Zerga ezberdinen bitartez 12 milioi pezeta sartuko dira Herriko Etxeko kutxetan eta bertze 12



**Euskara Merkatal Mundura kanpainaren aurkezpena burutu zen Donostian joan den martxoaren 22an, Malerreka-ko ordezkaria bertan zelaririk. Denetara hameka udalerrietako merkataria-riak dira euskara hobetu eta euskalduntzeko egitasmoan sartuak daudenak eta Nafarroan oraingoz Malerreka da eskualde bakarra**

milioi t'erdia tasen bitartez.

### SANEAMENDU LANAK

Erran bezala, ur-hornidura eta saneamendu sareak berri-

tzeko lanak eramanen dute aurrekontuaren zatirik haundiena. Jose Miguel Galarregi alkateak adierazi duenez, "aurten eta dato-

ren urterako inbertsio bakarra izanen da, gurea bezalako herri tiki-tietan ezin da gehiago egin". Martxoaren 22an ireki zituzten la-

nok egiteko zazpi eskaintzak. Adjudikatu bezain laister hasiko dira eta zortzi hilabete epea izanen da akitzeko. Modu honetan, "uda honetan izan ditugun ur arazoak moldatuko direla" us-te du alkateak.

### 'Kider' enpresa

Kider izeneko lan-tegia egin nahi du Donezteben Zabala enpresak mankomunitateko lur eremuan. Lantegi honetan, izenak dioen bezala, mota guzietako kiderrak eginen lirake eta hamabortz lanpostu berri sortuko omen ditu. Lantegia, Bacanor lan-tegi inguruan (lehen Norfres) kokatuko litzateke.

## Hamar eratsundar Xabierrera joan ziren

Olaia Igoaren bataioa ospatu zen martxoan

L. OTXANDORENA

Aurten Eratsungo jende asko animatu da Xabierrera oinez bidaiatzeko eta ongi iritsi ziren. Denbora eder-rrak lagundu zuen eta oinetan erredura batzuk bazituzten ere, Jesus apaiza eta bederatzia eratsundarrak umoretsu ailegatu ziren. Leku guztietatik jende asko hurbildu zen eta emaitzan, beti

bezala, usoak libre utzi zituen artzapezpi-kuak.

### Bataioa

Martxoaren 10ean Olaia Igoa Mindegia- ren bataioa ospatu zen. Eguna ederki igaro zu- ten familiakoek eta Miguel Mindegia ai- tonak lau bertso eder eskaini zizkion bere ilobari, "bataio honek haurrari indar berria ematen dioela" esanez, beste gauzen artean.

**Nabari den bezala, Eratsunen ere elurra franko egin zuen. Daniel eta Alazne bezalako haurrak, pozik halere, panpinarekin jostatzen ari baitziren**






# BAZTAN IKASTOLA



## EYSKARAZ IKASIZ EYSKARAZ BIZIZ



Parkeko Ikastolan  
eskura dezakezu  
eskabide orria

☎ 580256

ZYRE YMEA...

E  
Y  
S  
K  
A  
L

..KYLTYRAN

.....GIROAN

....NORTASYNEAN

...HAZIKO DYGV

# BERA eta LESAKAKO IKASTOLAK



Matrikula epea  
zabalik

LABIAGA IKASTOLA / ☎ 630172

TANTIRUMAIURU IKASTOLA / ☎ 637308



Nafarroako  
Gobernua

ELIZONDOM



## BATXILERGOAK

- *Tekniko Industriala*
- *Administrazioa eta Gestioa*

*IEE gaindituz*



## HEZIKETA ZIKLOAK (Lanbide Heziketa Berria)

### ERDI MAILAKOAK

- *Kudeaketa Administratiboa*
- *Mekanizatua*

*IEE gaindituz / 18 urterekin froga bidez*

### GOI MAILAKOAK

- *Administrazioa eta Finantzak*
- *Industri Ekipoen Mantenimendua*

*BTI / BAG edo UBI gaindituz sarrera zuzena  
18 urterekin froga bidez*



## GIZARTE GARANTIA

- *Soldadura eta Galdarigintza*
- *Bulego eta Merkataritza Laguntzailea*

*IEE eta BBB-2 ez gainditua*



## HEZKUNTZA BEREZIA

Informazioa eta Izenematea ☎ 580012



## LEKAROZEN



**DBH** (*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*)

- 1. maila
- 2. maila
- 3. maila



**BBB** (*Balioaniztun Batxilergo Bateratua*)

- 2. maila
- 3. maila



**IEE** (*Irakaskuntza Ertaineko Erreforma*)

- 2. maila



**UBI** (*Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea*)



**HEZKUNTZA BEREZIA**

Informazioa eta Izenematea © 580200

# Ornozko

## SAN MARTIN ESKOLA



### 1996-97 kurtsoa

**FORESTALA**  
**AGROPEKUARIA**  
**MEKANIKA**  
**SOLDADURA**  
**HOSTALARITZA**

Bigarren  
kurtsoa

#### Nork egin dezake?

REM edo BUPeko bigarren kurtsoa egin dutenak. Eta gero, Iruñean plaza lortzeko segurtasuna izanenda (Agropekuaria, Mekanika, Forestala...) ikasteko.

### GAUZA BERRIAK 1996-97 kurtsoan

**AROTXA** (Soldadura, burni lanak, nekazal tresnen konpontzea...)

**HOSTALARITZA** (Sukaldari Laguntzailea) Urte bat

**FORESTALA** edo bi

**Hasi:** 16 urtetan. (REM edo BUP utzi baduzu eta titulurik ez baduzu)

**Nola:** Egunero eta goizetan.

Deitu 948 - 592006 telefonora

# Aranora ez da iritsi errepidearen konponketa

Abañotik herrira bitarteko bideak hondatuta segitzen du, Suro auzokoa bezalaxe

ARANTXA ANSA

Dakigun bezela, aspalditik hondatuta zegoen Goizueta-Hernani errepidea, konponetzen aritu dira. Alde batetik, Goizuetatik Aranoko muga arte eta beste aldetik ere Hernanitik Napar-alde bitarteko errepidea.

Jakina da, ordea, Aranokoentzat ez dela halako zortetik izan, ez baita iritsi subentziorik, antza denez. Aranoko lurraldeko

errepidea erabat hondatua dago, Abañotik herrira bitartean eta badaude beste zenbait ere, Suro auzokoa kasu, Nafarroako Gobernuari tokatzen ez zitzaionez, bere egoera txarrean jarraitzen dutenak.

Lehengo urtean iritsitako subentzioaren ondorioz Beko-herriko sarrera konpondu zuten, baita oso bana-ka dauden baserri batzuetara sartzeko bideak ere, hala nola, de-

positora sartzeko bideak eta beste hainbat.

Eta Suro auzokoa zer?

## David bidaiari

23 urteko David Narbarte Martikorena aranoarra urtebeterako Ingalaterrara joan da, bertan lan egitera. Koadrillakoek despedidako afaria egin zuten eta uste baino lehen atera behar izan zuelako, herriko jendeak antolatutako despedida afaria ezeztatu zen.

## Mendaurko Trinitate ermitan kalteak sortu ditu haizeak

IBAN ISASI

Mendaurko Trinitate ermitan kalte haundiak eragin ditu azken asteetan izan ditugun haize indartsuek. Teilatuan izan dira kalterik haundienak eta puska bat, berekin batera eraman du haizeak. Beraz, hurrengo aste edo hila-beteetan moldatu beharko da.

## Lasaga-Ituren zubia

Hastear dira bi auzo hauek elkartuko dituen zubiaren lanak. Gainera bide berria egingen da Lasaga auzo sarrerako maldax-

katik hasita Iturengo goiko auzoan dagoen harategia eta lehenengo pisu blokearen artean dagoen sorora arte. Dagoeneko gruak ekarriak dira, baita lanerako beharrezkoak diren materialak ere.

## Ibintza taldearen eskaria

Nafarroako Gobernuak kultur ekitaldi-tarako diru kopurua murriztu duela jakina bada ere, Iturengo Ibintza kultur taldeak dirulaguntza eskaera luzatu dio Kultur Egunak finantzatu ahal izateko. Ea erantzuna baiezkoa den.



## Bi arrazoi gehiago Pedro Garmendia-ra etortzeko

### Renault Mégane berriak ezagutu eta probatzeko

Baditugu zenbait arrazoi guregana etor zaitezten Mégane eta Mégane Coupé berriak probatzera. Ekipamendurik osoena duten serieko automobilak. Segurtasun uhalendako Eusle Sistema Programatua. Airbag. Edo frenatze ultramotzeko sistema eskusiboa. Arrazoi gehiago behar ote duzu guregana etortzeko? Zatoz Pedro Garmendia-ra Mégane eta Mégane Coupé Berriak probatzera, konpromisorik gabe. Kilikagarria izanen da. Seguru.

RENAULT BERRIAK **Mégane**

GIDATZEN DUZU EDO ZAITUZTE?

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO



**RENAULT**  
GIDATZEKO  
PLAZERRA

**Goizueta**


## Euskal Herriko Itzulia herritik igaroko da apirilaren 12an

Asier Olaizola pilotariak profesioaletan bi urterako kontratua izenpetu berria du Alti enpresarekin

**ESTEBAN AROZENA**

Indurain, Rominger, Olano, Berzin eta Jalabert dira, txirriindulari munduko beste hainbat izen ezagunekin batera Euskal Herriko itzuliaren aurtengo edizioan parte hartuko dutenak, hau da, apirilaren 12an, goizeko 11ak inguruan Goizuetan barrena igaroko direnak.

Kirol ekintza interesgarri hau gauza dadin, Udalak egindako gestioek bere fruitua eman dute, eta herriko bi enprekin batera (Iskibi kanpina eta Koldo plastikoak) udala bera da antolatzaileekin hitzartutako diru kopurua ordainduko duen erakundea.



**Apezetxea eta Almandozek irabazi dute Nafarroako Cluben arteko eskuz binakako txapelketa Umore Ona elkartearen izenean. Pilota sailaren garaipenik haundiena izan da.**

Arg.: Egin

Mari Almandozek eman diote Umore Onari pilota sekzioa sortu zuenetik lortutako garaipenik haundiena, Nafarroako Cluben arteko txapela hain zuzen ere. Martxoaren 23an jokatu ziren Labriten finalak, eta Umore Onako bi ordezkariak osasun egoera txarrean egon arren 22-21 nagusitu ziren Mariezkurrena eta Okiñenaren aurka.

### **Bideoak euskaraz**

Udal Euskara Zerbitzuari esker, guraso elkarteko liburutegian euskarara itzulitako bideoak etxeratzeko aukera eskaintzen zaie herriko haur eta gaztetxoei.

### **Olaizola profesioaletara**

Asier Olaizolak hurrengo bi urterako kontratua sinatu du Juan Carlos Alti pilota enpresariarekin profesional mailan jokatzeko.

Urte oparo baten ondoren etorri zaio aukera hau Asierri, bikoteka lortutako garaipenez gain, Zumarraga eta Elgetako mani-manoko txapelketak eskuratu baititu

besteak beste, 1,85ko garaiera eta 84 kilo inguruko pisua du hurrengo maiatzean 21 urte beteko dituen arrelariak.

Bestalde, Juantxo Apezetxea eta Jexus

**Areso**

## Ingurugiroari buruzko proiektua aurrera doa eskolan

**JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR**

Ingurugiro proiektuari buruzko ekitaldiak aurrera doaz Areso eskolan. Lehena, gure ingurua ezagutzea izan zen, landare, animalia, basoak, etabar... Gero, zaborren munduaren barnera sartu eta zer den, nola erabiltzen den eta zabor hori gure etxeetan birziklatzeko nola landu ikasi zen. Zaborrontziak nola erabili



**Haurrek sortuko dute ingurugiroari buruzko konzientzia helduengan**

behar ditugun argitasunak banatu ziren e-

txez etxe, papera, beirra, metala, plastikoak,

etab... Hitzaldi bat ere eman zen. Errekak eta

basoak garbiagoak nola eduki eta zikintzen ez zaiatu. Oraingoan, haziak eta landareak bildu dituzte eta honen helburua, eskolan mindegia osatzea da.

### **HELDUENGAN KONZIENTZIA SORTZEA**

Proiektuaren arabera, umeak dira parte-hartzaile garrantzitsuenak eta hauek sortaraziko omen dute konzientzia helduengan.



# Udalak ustezko irregulartasunen bidez jasotako dirua bueltatu beharko du

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako kontseilariaren esanetan prozedura hasia da dagoeneko

JOSEBA AZPIROZ

Toki Administrazioako Departamentuko Del Castillo kontseilariak Parlamentuan izan duen agerraldian ziurtatu zuenez, Leitza udalak modu ezegokian lortutako dirulaguntzak bueltatu beharko ditu eta horretarako prozedura hasia da dagoeneko. Horretaz gain ardura administratiboak argituko dituen isun-espedienteak ere hasia du.



Aliñeko Gerardoren basaurdea berriz ere umatu da. Oraingoan bost ume egin ditu

Argazkia: Joseba

## Sutarako egurra

Sutarako egurra nahi duen guztiak bere izena eman beharko du Udal idazkaritzan, apirilaren 19aren eguerdiko ordubata baino lehen. Egurraren truke, auzolanean egun bat egin beharko da. Gaitz egurra eskatzen dutenek ere, epe berdina izanen dute.

## Arau Subsidiarioen aldaketa

Udalak herriko Arau Subsidiarioen al-

daketa puntual bati hasiera eman dio, Jogar enpresak eskatuta. Aldaketa honen ondorioz, enpresa honek etxe batzuk egin ahal izanen ditu Patxi Arrazolan (gora goazela, kamioitik ezkerretara). Etxeak familiarrekoak eta adosatuak izanen dira eta Babes ofizialekoak.

## Borda errea

Pello Urkiola jaunak agiri baten bidez

azaldu du bere familiaren borda erretzeak bera firmak biltzen ibili izanarekin zerikusia baduela bere ustez. Sua norbaitek emana izan zela garbi gelditu zen, eman baino lehen ardiak atera baitzituzten. Firma hoi bidez, maiatzean mendira bidaltzen diren aziendak, gutxienez hiru hilabete lehenagotik herrian egotea eta katastroan sartuak izatea nahita-

ezko baldintzak izan zitezten Udalari eskatzeko ziren.

## Haize parkea behin-betiko onartu da

Nafarroako Gobernu Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitzarako kontseilariak behin betiko onarpena eman dio Leitza haize-errota parkea egiteko 'Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A.' enpre-

sak bultzatutako plan bereziari. Azkenean 31 haize-errota jarriko dira Aritz kasko inguruan.

Onarpen honen kontrako errekurtsoa aurkezten ahal da, apirilaren 27a baino lehen.

## Ezinduen zentroko zaindaria

Ezindu psikikoen zentroko lanpostu baterako oposizio-lehiaketarako 88 hautagai aurkeztu dira. Hauetatik 85 proposamen onartu dira eta beste hiruak atzera bota dira, deialdian eskatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik. Lehiaketa laister egingen da.

## Errekor eguna

Martxoaren 24an, Miel Saralegi herritarren errekor haundiarekin batera, herri kirol saio ederra ikusi zen Amazabal frontoian. Zelaik ere marka ikusgarria lortu zuen.

• Era guztietako aseguruak  
Etxerakoak, Bizitzakoak,  
Istripuetakoak, Jubilazio Planak

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA  
Tel. (948) 61 09 19  
2861 Erregistro zenbakia



## GAZTELU ITURGINTZA

### KALEFAKZIOA

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

## ttipi-ttapa Gida Komertziala 96

Gida honetan zure publizitatea sartuz, egon seguru klienteek zure berri izatea errazago dutela. Aurreztu denbora eta dirua zure publizitatea **ttipi-ttaparen** Gida Komertzialean sartuz.



**Baztan**

# Balleko Etxea Elizondo sarrerako platanook moztearen kontra

Administrazioan euskara idatzia erabiltzeko konpromezua apirilaren 2an sinatu zuen alkateak udal langileen izenean

JOSEBA IGARABIDE

Balleko Etxearen ustez Nafarroako Gobernuak Bide Sailak proposatutako irtenbidea –trafikorako arriskutsuak direla eta Elizondo sarrerako platanook moztea, alegiaz da egokiena. Udalak zuhaitz hauek paisaiaren zati garrantzitsua direla pentsatzen du eta bertze soluzioaren bat ematea eskatu dio Bide Sailari. Gainera, saihebidetaren proiektua aitzinera ateratzen bada trafikoa dexente murriztuko dela uste du Balleko Etxeak.

## Balleko Etxean euskaraz

Apirilaren 2an sinatu du alkateak Balleko Etxeko langileak zerbitzu elebiduna emateko konpromezua. Modu honetan, herritarren hizkuntz eskubideak errespetat-



Ituritako Gure-Kaiola elkarteko mus txapelketan Joxe Urroz eta Mauro Goikoetxea suhi-aitaginarrek suertatu dira irabazle, finalean Ernesto Villoria eta Modesto Ustaritzi irabazi ondotik. Hemeretzi bikotek parte hartu dute txapelketan eta sariak Mariano Oteiza lehendakariak eman zituen

tzeko udal langileen inplikazioa bilatzen da. Balleko Etxean euskara idatzia erabiltzeko onartu berri den araudiaren barnean sartzen da honako iniziatiba hau.

## Pello Azkarate hil da

Urte aunitzez Aniz eta Berroetako Arkupe jubilatua izan den Pello Azkarate martxoaren 12an hil zen.

## Kinto bestak parrastan

1963ko kintoak maiatzaren 4ean Eskisaroen bilduko dira. 1974koak Lekarozko Larraldea sagardotegian bazkalduko dute apirilaren 13an. 1975koak egun berean egingen dute besta Galartzan. 1962koak martxoaren 30ean Arizkungo Etxeberrian elkartu dira. 1966koak apirilaren 13an Iruritako Olarin ospatuko dute eta 57koak Erratzuko ostatuan, apirilaren 27an.

## ttipi-flash

- ❖ **Amaiurko** kontsulta moldatzeko lanen aurrekontua 2.291.362 pezetakoa da.
- ❖ **Oronozko** Herriko Etxearen aitzinaldea moldatzea erabaki zen herriko azken batzarrean. Aurrekontua 1.300.000 pezeta ingurukoa da eta milioi bateko dirulaguntza eskatuko zaio Balleko Etxeari.
- ❖ **Atxiloketak** Martxoaren 28ko goizaldean Eneko Etxandi arraioztarra, Aitor Nuñez elizondorria eta Iban Iparagirre Zugarramurdiko gazteak atxilotu zituen guardia zibilak, ustez kalteak sortzeko prestatzen ari zirenean.
- ❖ **Amaiurko** sarrerako arkuak bota zuen kamioiaren jabearen lehenbaitlehen moldatzea eskatu dio Balleko Etxeak.
- ❖ **Almandoztarrek** bazkaria egin dute Añamendiko etxolan Bazko bezperan.

## 15 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Baztango Gizarte Zerbitzuak

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Oinarrizko Gizarte zerbitzuak 15 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu du. 9 milioi Nafarroako Gobernuak jarriko ditu eta gainerakoa hiru udalen

artean banatuko da, biztanleen arabera.

Gizarte Zerbitzuak 12,7 milioi pezeta erabili zituen iaz. Baztango udalak 5.160.000 pta. ordaindu zituen, 300.000 Urdazubikoak eta 125.000 Zuga-

rramurdikoak. Nafarroako Gobernuak 6.700.000 pezetaz lagundu zuen zerbitzu hau. Gizarte langilea eta administratzaileaz gain, lau lagun enplegatu zituen etxeko zerbitzuan.

**JATETXEA**  
Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO  
**Galarza**

ERLOJU eta BITXI DENDA  
**ARRIETA**  
KIROL TROFEOAK  
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - ☎ 580313  
ELIZONDO



# 'Hamabi ordu eskuaraz': sekulako besta apirilaren 21 ean

Doike euskara taldeak berriz, bere aurkezpen ofiziala egingen du asteburu berean

TTIPI-TTAPA

Goizeko 9etan hasi eta gaueko 9ak arte hainbat ekitaldi burutuko dira Baztanen 'Hamabi ordu eskuaraz' ekitaldiaren barrenean. Lehenik argi soinuak herri guzietan, mendigoizaleen irteera eta eskubalo partidua izanen dira.

Hortik aitzinera, momentuoro izanen da zer ikusi eta zer egin: kirolak (rugby, laxoa, pilota, futbito, futbola, paleta, herri kirolak) eta musika (Baztango musika eskolako akordeoi orkesta eta banda, Baztango gaita eta rock kontzertua *Pottoka* eta *Rigor Mortis* taldearekin).

Eguerdian, meza ondotik dantzariak, musikariak, erraldoiak eta buruhaundiak plazaraino joanen dira eta guztiei ongietorria eskainiko zaie. Gero, mutildantza, sokadantza eta bertsolariak arituko dira. Honetaz gain, zikiro-jatea ere izanen



Martxoaren 19an omenaldia eskaini zitzaion Yolanda Amaiurko maistra zenari. Pilota partiduak, dantzak, bertsoak... eta eskolan egon zen 16 urtetan berak ateratako argazkiak ikusgai izan ziren Argazkia: Ixabel ALEMÁN

da Baztandarren Biltzarreko arkupean eta bazkalondotik mus txapelketa, dantzariak eta sokatira izanen dira. Baztango margolariak, artisauak, AEKk eta Cedernagaralurrek erakusketak zabalduko dituzte eta ikastetxeen saioa ere burutuko da.

Egitarau zabal hau Baztango dantzari taldeak antolatu du.

## Almandozko Jauregian konponketak egitea eskatu du Balleko Etxeak

Almandozko eskolako teilatua arras egoera kaxkarrean dago, bertako zuzendariaren erranetan: "haizeak jotzen duenean teilak lurrrera erortzen dira, haurrendako arriskugarri bihurtuz". Hau dela eta, teilatua lehenbaitlehen moldatzea eskatu dio Balle-

ko Etxeari. Kontutan hartu behar da Almandozko eskola Jauregia etxean kokatua dagoela. Etxe hau Nafarroako Ondare Historiko eta Artistikotzat kontsideratua da. Balleko Etxeak Jauregian zaharberritze lanak egiteko eskaria egin zuen joan den urtean,

baina Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura sailak ezeko eman zion orduan.

Orai, Almandozko Eskolaren idatzia ikusi ondotik, berriro eskari berdina luzatuko dio Udalak Nafarroako Gobernuko sail horri eta Bianako Printzea erakundeari.

ttipi-flash

- ◆ **Arraiozko** eliza moldatzeko aurrekontua onartu da. Herriko alkatea eta alkate-laguna martxoaren 16an joan ziren apezpikua-rekin solastera.
- ◆ **Argazki zaharrak** biltzeko laugarren kanpaina burutu da martxoaren 18tik 30era.
- ◆ **Antero Etxandi** izanen da Ehizi eta Arrantza elkarteko ordezkaria Nafarroako Gobernu Ingurugiro saileko mahaian.
- ◆ **Baztandarra** txirrindulari elkar-teak txirrindulari eta agintari zenduen aldeko meza atera du martxoaren 31n.

**Apirilaren 20an**  
karrikara aterako gara.  
Goizeko 12,30etan  
Arizkunenean aurkezpena



**EUSKARAZ,  
DOIKE!**

DOIKE Euskara Taldea

### BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

### MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

*Eskisaroi  
jatetxea*

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
ELIZONDO

Urdazubi

## Dantxarineako telefonoak listinean Urdazubin sartzea eskatu da

Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko 1972ko kintoek Ikaburuan ospatuko dute kinto besta larunbat honetan

ALIZIA OLAIZOLA

Telefonicak banatzen duen listinean, alde batetik Urdazubi ageri da eta Dantxarinea bertetik. Udalarren ustez, ordea, Dantxarinea Urdazubiko auzoa denez egokia da auzo hori Urdazubiren barnean agertzea. Gainera, hainbat jendek deitu omen du Herriko Etxera bere haridura erakutsiz. Hau dela eta, udalak Telefonicari zera eskatu dio: Dantxarinea entitate bezala kentzea telefono gidatik eta bertako telefonoak Urdazubi



Kinto besten aldia hasi da

zubin sartzea, guztietan Landibar auzoa jarritz.

❖ 25.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalak Doneztebeko

DYari bere zerbitzua eskaintzen segitu ahal dezan.

### 1972koen kinto besta

Kinto bestak hasiak dira herriko jatetxe ezberdinetan ospatzen. 1972an Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubin jaiotakoek elkarrekin ospatzen dituzte eta aurtengoa Urdazubineginen dute ospakizuna. Bazkaria Ikaburua jatetxean izanen da apirilaren 13an eta ondotik dantzaldia Arizkungo Angel Mendiberriekin. Gainera, baztandarrek autobusa izanen dute hunat etortzeko eta bueltatzeko.

Zugarramurdi

## I. Txotxongilo topaketa ospatuko da Mikel Diezen oroimenez

MARGARI ETA KORO

Apirilaren 20 eta 21ean Mikel Diez zena gogoratuko da Zugarramurdin Txotxongilo topaketa baten bidez.

Larunbatean, arratsaldeko 6etan Goloka eta Korroskada taldeak arituko dira. 7etan Taun Taun taldearen *Bikate* ikuskizuna ikusgai izanen da frontoiko ostatuan. Ordu bete beranduago, leku berean Gorakada taldeak bere sketchak erakutsiko ditu. Afariaren



Kartzelan 15 urte bete dituen Fernando Arburua herriko semeari omenaldia eskaini zitzaion martxoaren 24an. Goizez hiru pilota partidu eta eguerdian 300 lagun bildu ziren zikiro-jatean. Bazkal ondotik Fernandok bidalitako eskutitz bat irakurri zen eta gero Xotero Etxandi solasean eta Xabier Silveira bertsoan aritu ziren.

ondotik, Phanta Rei taldeak *Altzateko Jauna* antzestuko du eta mu-

sika kontzertua izanen da *Rigor Mortis* eta bertze talde batekin.

Goizaldeko 2,30etan Proismo Cero taldearen sketcha izanen da.

Igandean, haurren ikuskizuna izanen da eskoletan Txotxongilo taldearen eskutik. Ordu bete beranduago, hau ere haurrei zuzendua, Bei-bis taldeak *Bertsotas* eskainiko du. 11etan Bihar, Kukubiltxo, Taupada, Corrado eta Tenderete taldeak karrketan barna arituko dira. 1etan, Tira ta Afloja taldearen *El loto rojo* ikuskizuna frontoian eta 2etan Kilimiliklik taldearen *Sorgiñak* antzokian. Akitzeko, arratsaldeko 3etan herri bazkaria ospatuko da.

Sara

# Beti Gazte elkarteak biltzar nagusia burutu zuen martxoaren 20an

Asteburu honetan iraganen den Euskal Idazleen Biltzarrean musika inguruan atera diren lanak aurkeztuko dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Beti Gazteko kide-ek beren biltzar nagusia martxoaren 20ean egin zuten "Le Pullman" jatetxean. Konduen egoera zabaldu ondoan, urtean zehar egin ekintzak aipatu zituzten. Orduan, egun bakarreko ataraldi gehiago egitearen nahia azaldu zen. Udaberriko lehen egun huntan, gure adinekoak indar gaitzean agertu ziren. Bilkura huren ondotik, 110 partaideek otuntza baten inguruan jarraritu zuten elkarretaratze hau.

## Presoak Euskal Herrirat

Martxoaren 17an Presoak Euskal Herrirat kanpainaren kari elkarretaratzea egin zen Larrun kaskoan "Pre-



Idazleen Biltzarra polikiroldegian burutuko da apirilaren 13 eta 14ean. 140 idazlek beraien lanak saldu eta izenpetuko dituzte

soak etxerat, amnistia osoa" oihua ahal bezain urrun helarazteko xedearekin. Sarako plazatik hirurogoi bat lagun abiatu ziren eta Manex Bergara ideki

bidea segitu bertzerik ez zuten. Bainan ez ziren bakarrak, jendar-mak hor ziren zain plazan, baita Lizuniagan eta Larrun kaskoan ere. Erran gabe doa hau sa-

latzekoa dela, bake-bideek ez baitute holako oztopoen beharrik. Hala ere, Larrunen ehun bat lagun bildu ziren. Gutunak bidali ziren Frantzian diren

preso guzietan, baita Bortzirietako presoetan eta Fernando zugarramurdiarrari ere.

## XIII. Euskal Idazleen Biltzarra

Asteburu huntan, apirilaren 13 eta 14ean iraganen da eta usaiko ekitaldietaz gain, sari ainitz banatuak izanen dira aurten larunbat arratsaldean.

Igandean, apirilaren 14ean, goizeko 9ak et'erdietarik arratsaldeko 6etarat ohizko biltzarra ukanen dugu eta hor 140 idazleek liburuak saldu eta izenpetuko dituzte. Aurtengo berritasuna: musika eta kantagintza inguruan atera diren lanak aurkezterat etorriko dira egile eta argitaletxeak.

M<sup>a</sup> Dolores Miñana  
TOPOGRAFOA

NEURKETA • PLANOAK

Lur neurketak, Luberriak  
Plantazioak, etab...

☎ 580143 - 908.824464  
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala 8etatik aitzinerat  
Larunbata eta besta egunetan zabaik.

© 45 21 21 • LEKAROZ

**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562  
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA  
BAINU MOBLEAK**

Egoki-ren banatzaile  
baimendua

FEGOKI  
SUKALDEKO MOBLEAK  
FABRICACION DE MOBLES DE COCINA

ESKATU ORDUA

**FOTO MENA**

FOTO MENAN EGUN NABARMENAK  
AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU

**ZEURE JAUNARTZE EGUNEKO  
ARGAZKI HOBERENAK**

KALE NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE  
SANTIAGO KALEA 40 - TEL. 58 01 55 ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Txomin Landa Iturralde** eta **M<sup>a</sup> Aranzazu Zaldain Maisterrena**, Elizondo eta Amaiurkoa, martxoaren 16an.

**Agustin Perez Zabaleta** eta **Mirari Tomasena Apezetxea**, Andoain eta Goizuetakoa, martxoaren 23an.

**Juan Manuel Irazoki Mikelperizena** eta **M<sup>a</sup> Amaia Telletxea Inda**, Bera eta Elgorriagakoa, martxoaren 9an.

## JAIOTZAK

**Francisco Javier Human Arribillaga**, Leitzakoa, martxoaren 4an.

**Iban Atxa Urbeltz**, Elizondokoa, martxoaren 7an.

**Lorea Ziaurriz Irungarai**, Elizondokoa, martxoaren 16an.

**Unai Elizegi Otxandorena**, Elizondokoa, martxoaren 20an.

**Oihane Zugarramurdi Zubieta**, Goizuetakoa, martxoaren 23an.

**Jon Telletxea Goñi**, Donamariakoa, martxoaren 23an.

**Jokin Pinacho Olaziregi**, Berakoa, martxoaren 19an.

**Xabier Mayordomo Almandoz**, Berakoa, martxoaren 19an.

**Ane Elzaurdia Mentaberri**, Berakoa, martxoaren 19an.

**Andoni Espelosin Goizueta**, Sunbillaakoa, martxoaren 19an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.

**IRUÑEKO KUTXA**  
Elizondo Landa Aldeko Kutxa

## HERIOTZAK

**Josefa Baleztena Mutuberria**, Saldiasakoa, martxoaren 24an, 93 urte.

**Joaquin Andiarena Etxekolonea**, Legasakoa, martxoaren 7an, 69 urte.

**Pedro M<sup>a</sup> Azkarate Etxenike**, Anizkoa, martxoaren 12an, 84 urte.

**Alejandro Jaimerena Salaburu**, Amaiur, martxoaren 11n, 64 urte.

**Luis Garcia Llamazares**, Elizondon, martxoaren 12an, 75 urte.

**Catalina Ezkurra Baigorri**, Elizondon, martxoaren 14an, 69 urte.

**Jesus Jaimerena Olazar**, Iruritikoa, martxoaren 15ean, 87 urte.

**Concepcion Arizkuren Ziriza**, Elizondon, martxoaren 25ean, 73 urte.

**Maria Irigoien Irigoien**, Arizkungoa, martxoaren 20an, 88 urte.

**Vicente Armendariz Sarasate**, Elizondon, martxoaren 22an, 83 urte.

**Jesus Fco. Urreaga Ariztia**, Doneztebekoa, martxoaren 21ean, 50 urte.

**Eusebio Iriarte Garate**, Nartartekoa, martxoaren 22an, 73 urte.

**Joset Etxebeste**, Sarakoa, martxoaren 22an, 69 urte.

**Pilar Guilsou Berekoetxea**, Sarakoa, martxoaren 23an, 78 urte.

**Fca. Marcela Leonis Babaze**, Donamaria, martxoaren 17an, 59 urte.

**Leandro Oiartzabal Plazas**, Berakoa, martxoaren 24an, 92 urte.

**Josefa Otxandorena Anzizar**, Sunbilla, martxoaren 15ean, 48 urte.

# “San Francisco Javier” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa

## ELIZONDO

1993. urtean sortutako ikasle eta bertze maila guztietako berrientzat izen emateko epea zabalik dago. Eskaera orriak Eskolako Idazkaritzan hartu eta bete daitezke goizeko 9 t'erdietatik ordu batera eta arratsalde 3etatik 5etara. Izen ematea apirilaren 15etik maiatzaren 6a arte izanen da.

Zentro honek dituen aukerak hauek dira:

- a.- Bi adar (bata euskaraz eta gazteleraz bertzea) 3 urtetik 12 arte.
- b.- Musika eta Gorputz Heziketan espezialistak diren irakasleak.
- c.- Atzerriko Hizkuntzaren sarrera (Frantsesa) Lehen Hezkuntzako 2. zikloz geroztik
- d.- Informatika gela ikasleen erabilerarako.
- e.- Psikomotrizitate gela.
- f.- Heziketa berezia behar duten ikasleentzat irakasle espezializatuak eta logopeda
- g.- Ikastetxeko orientatzailea

## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak ..... 112/088

Osasun Zentruak

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidencia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea ... 460299

Erresidencia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264 / 621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242 / 450805

**DYA**

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 450475

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

**Suhiltzaileak**

Oronoz-Mugairi ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarari ..... 515018

**Aberiak:**

Iberdrola ..... 450335 / 450336

## Datorren ikasturterako izen-emateak laister hasiko dira ikastetxeetan


Apirilaren 15etik maiatzaren 6ra

1996-97 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina apirilaren 15ean hasiko da eta maiatzaren 6a bitarte luzatuko da.

Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola eta ikastoletan (hiru urtetik hamabi urte bitarteko ikasleak biltzen dituztenak) 1993an sortutako haurrek ere izena emate

ten ahal dute dagoeneko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez (12 urtetik 16ra), matrikulatzeko aukera izanen da Beran, Donezteben, Elizondon, Leitza, Lekarozen eta Oronozen. Goizueta eta Aranoko kasuan, ikasleek nora joanen diren argitu gabe dago oraindik.



Nafarroa osoan kasu bakar bat azaldu ez bada ere 'Behin eroak' izeneko gaixotasunak eragin nabarmena izan du bertako aretzearen salmentetan. Halere, batez ere Gipuzkoa aldetik jende aunitz hurbiltzen omen da inguru honetako harategietara kalitateko haragia erosi nahian.



## Patxi Otxandorena oronoztarra AC/DC taldeko musikariek

Onda 10 Madrilgo irrati zozketa batean saritua suertatu ondotik, New York-en AC/DC rock talde famatuaren kontzertua aditzeko aukera izan zuen Patxi Otxandorena oronoztarra. Martxo hasieran bartz egunez egon zen Estatu Batuetan. Kontzertu egunean, Madison

Square Garden aretoa leporaino bete zegoen, baina kontzertuaren ondotik AC/DC taldeko kideekin elkarrizketatu eta argazkiak ateratzeko aukera izan zuen Patxi.

Ezkerreko argazkian, Patxi Otxandorena da mutilik altuena eta bere ondoan Angus Young, taldeko gitarra ageri da.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



LOREDENDA • GARDEN CENTER

**ESTHER FUNERARIA**

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •  
Dokumentazioak  
Bezitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



**IRACHE TANATORIOA**

Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO



Berako XXIII. pilota txapelketan finalistak izan direnak

Argazkia: Aitor

## Berako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren martxoaren 24an

Hainbat urtez pilota irakaslea izandako Kepa Arretxearen senideei omenaldi hunkigarria eskeini zitaion ondoren



Martxoaren 24an burutu ziren Eztegarra pilotalekuan Gure Txokoa elkarteak antolatutako Berako pilota txapelketaren 23. edizioko finalak, honako emaitza hauekin:

**Paletan:** Santamaria-Dagerrek, 30; Castellana-Petirenak, 29.

**Eskuz binaka, benjaminak:** Puyadena-Agirrek, 18; Irazoki-Berruetak, 9.

**Eskuz binaka, alebinak:** Irazoki-Larretxeak, 18; Txoperena-Telleteak, 8.

**Eskuz binaka, infantilak:** Irurieta-Zubietak, 18; Retegi-Atzugurenen, 15.

Gutzira berrogei bat bikotek parte hartu dute aurtengo txapelketan. Halere, larruzko paleta txapelketa ez da jokatzetik izan, "jende guttik izena ematen duelako" antolatzaileen erranetan eta gomazko paleta txapelketan ere

maila bakarrean parte hartu dute pilotariek —orain arte bitan banatzen ziren—.

### KEPA ARRETXEARI OMENALDIA

Finalen ondotik eta sari banaketa baino lehen, omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion Kepa Arretxea, pilota eskolako irakaslea izandakoari. Bere emazte eta seme-alabek lore sorta eta oroi-garria jaso zuten eta aurrekua dantzatu zieten.



### ❖ Asier Olaizola

20 urteko pilotari goizuetarrak Alti enpresarekin sinatu du bere lehen kontratu profesionala. Goizuetako aurrelaria bi urterako lotu da enpresari gasteiztarrarekin.

### ❖ Umore Ona

elkartearen izenean Nafarroako club arteko txapelketa irabazi dute Juantxo Apezetxea goizuetarrak eta Jexus Mari Almandoz lesakarrak, Okiñena eta Mariezkurrenari 22-21 irabazi ondotik.

### ❖ Juan Carlos Garro

Grisley taldeko txirrindulari beratarrak 5. Coronas mendi bizikleta sari nagusia irabazi berri du. Orbea taldeko Roberto Lezaun bigarrena izan da sailkapen orokorrean.

### ❖ Rafa Maritxalar

laisterkalari lesakarrak Le-kunberriko Lekoa (6.040 metro) irabazi zuen martxoaren 24an. Nafarroako atletismo probarrak zaharretako den hau betetzeko 8'44" behar izan zituen Iranzu taldeko laisterkalariak.

### ❖ Unai Apeztegia

Iturengo atzelaria, 22 urtez behitiko Espainiako Federazio arteko txapelketan ez du parte hartzerik izan, Nafarroako Federazioak selekzioetik kanpo utzi baitu, selekzionatzailearen erabakiaren kontra. Txaruta taldeak bere haserrea erakutsi du, "erabakia hartzeko kirolaz kanpoko erizpideak erabili direla" erranez. Nafarroako Federazioak, bere aldetik, "Apeztegiak azken bi urtetan ez du Club arteko txapelketan parte hartu, Federazioarekiko eta bertze pilotariekiko errespetu falta erakutsiz" erantzun du.



## AROS-BERRI

N-121-B karretera • IRURITA • ☎ 581021




## SAME Traktoreak

Auto eta mendi ibilgailuentzat

### ERREMOLKEAK

30.000 Pta. (BEZa barne) dokumentazioarekin.  
Autoarendako engantzea urrik emanen dizugu.



Ez hondatu zure autoa eta eros ezazu erremolkea.

Edo bertzenaz, autoa eta furgoneta eduki beharrean, erremolkearekin diru pila aurreztuko duzu.

## DATUAK.....

1 Mikel Saralegi, Arro baserriko leitzarrak 28 urteak beteak ditu.

2 Familian arrunt errotuta dago herri kirola: sei anai-arrebetatik bost aizkoran ari edo arituak dira eta bera harri jasotzen.

3 Gimnasio bateko monitorea bezala lan egiten du Iruñean.

4 Bestelako kiroletan gutxi aritu da, eskola garaian eskubaloian zertxobait.

5 182 zentimetroko altuera eta 130 kiloko pisua du.

## Mikel SARALEGI:

# «324 kilokoa altxatzen saiatuko naiz Diman maiatzaren 26an»

Bigarrenen bai. Martxoaren 24an, 323 kiloko harria bizkarrean berdindu zuen Mikel Saralegik bere sorterrian. Leitzan egiteko arrazoia erretasuna dela dio. *“Forma onean ginauden, saioa presatu beharrazegoen eta guretzat errexagoa da Leitzan egitea. Beste herri batzuk ere hor ibili ziren, baina atzera egin zuten azkenean. Herritarren animoa somatzea, gainera, beti berezia da”*. Anoetan huts egin zuen *“atzegi pasatu nuen frenorik gabe gelditu nintzelako”* – eta harria moldatu behar izan du: *“Ez da lan haundia, baina Bergarara joan eta arraisalde bat galtzen duzu. Ahal den azkarren moldatzen dute baina bere denbora behar izaten du”*.

### KILO BAT GEHIAGO MAIATZAREN 26AN

Harri honek dextenteko lana eman badio ere, kilo bat gehitu nahi dio aurten Saralegik munduko errekorari. *“324 kilokoarekin saiatuko gara Diman, maiatzaren 26an, Ehiztari eta Arrantzaleen egunaren barrenean”*. Momentuz, mugariek ez dio jarri nahi Mikelek bere buruari. *“Orain*



Mikel Saralegi, martxoaren 24an altxatu zuen harriarekin

*hau altxatzen dugun ikusi eta gero hitzgingo dugu”*. Erretiratzeko asmorik ere ez du agertzen, *“gora goazen bitartean behintzat ez, gustatuko litzaidake denbora dexenterako kuerda izatea baina ez dakit...”*. Beste norbaitek marka

hauek gaudituko dituen galdetzerakoan, umilki erantzun du leitzarrak: *“Ni ailegatu banaiz besteak ere igual-igual ailegatu daitezke. Beharbada hau ez da momenturik aproposena, baina orain ez bada geroxeago azalduko da bakarren bat eta ailegatu eta pasa egingen du. Momentuan hor hurbildagoenik ez dago baina azalduko da, bai”*. Hori egingen duenak, indarra izateaz eta tekni-

ka menderatzeaz gain, asko entrenatu behar du Mikelen ustez. *“Harrijasotzaileak dena behar du: indarra izan eta landu, teknika ere bai eta entrenamendu asko”*. Berak, esate batera, astelehnetik ostiralera egunero entrenatzen du. *“Astelehenean harriarekin, astearte, asteazken eta ostegunean pesak eta ostiralean, denboraldiaren arabera, batzutan harria bestetan pesak”*. ■

► *“Beharbada hau ez da momenturik aproposena, baina orain ez bada gero azalduko da nere markak gaudituko dituen bakarren bat. Ni ailegatu banaiz besteak ere ailegatu daitezke”*

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

##### ► Apirilaren 21ean

Arkupetan 'Rigor Mortis' eta 'Pottoka' arratsaldeko 8etan.

### EKITALDIAK

#### BAZTAN

##### ► Apirilaren 21ean

'12 ordu euskaraz' ekitaldien barnean, goizeko 9etatik gaueko 9ak artio, kirol eta kultur ikuskizunak.

#### SARA

##### ► Apirilaren 13-14an XIII.

Euskal Idazleen Biltzarra. Igandean, goizeko 9,30etatik arratsaldeko 6etara, 140 idazle elkartuko dira Polikiroldegian.

#### ZUGARRAMURDI

##### ► Apirilaren 20-21ean

Kilimiliklik taldeko Mikel Diez zena-ren omenez, lehenengo Txotxongilo Topaketak. Euskal Herriko hainbat talde arituko dira era guzietako ikuskizunak eskeintzeko.

### IPIUAK

#### DONEZTEBE

##### ► Apirilaren 22an

arratsaldeko 3,30etan zinean, Virginia Imaz-en taldekoen kontakizunak.

### ERREZETA



## Bildots opila berenjena kremaren gainean

### Osagaiak

#### 4 lagunentzat

• kilo t'erdi bildots izter • kala-bazin 1 • tipula bat t'erdi • piperr gorri bat t'erdi • berenjena erdia • **Krema egiteko:** tipul erdia • 2 baratzi ale • berenjena erdia • bi tomate ondu • barazki salda •

#### Prestatzeko modua

Bildotsa erre (ura, olio pixkat eta gatz-pipertua) 25-30 minutuz 180°tan. Ez erre sobera. Izterra

xerratu. Bitartean, tipula eta piperrak juliana eran xerratu eta bakoitza bere aldetik egin olio eta gurinetan. **KREMA PRESTATZEKO:** Tipula, baratzi eta berenjena xehetu eta zartagian pasatu. Tomateak eta salda gehitu eta egina dagoenean, irabiatu eta txinoan pasatu. **AZKEN PAUSUAK:** Flanerak kalabazin xerrekin forratu. Segi-



David BIDAURRE

Sukaldaritza ikaslea

•URDAZUBI•

dan, kapatan, tipula, piperra, bildots xerrak, eta azkenik berenjena xerrekin tapatu moldea. Berenjena krema berotu. Moldeak bañomarian 5 minutuz edukitu, moldetik ateri, eta listo!

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoal): 7.500 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 175 pzta/kilo
- **Zerramak:** 125-130 pzta./kilo bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 570 |
| 1.koa ..... | 540 |
| 2.koa ..... | 520 |

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 580 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 530 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

#### • Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak): **Nabarrak:** urruxak 20.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 28.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.

#### Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 450 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



#### ❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- **Bertako sagarrondoak** 950.
  - **Udareondoak** 950 pzta.
  - **Gereziondoak** 1.050 pzta.
  - **Aranondoak** 1.050 pzta.
  - **Muxika** 880 pzta.
  - **Urritza** 880 pzta



#### ❖ LANDAREAK ❖

- **Porruak** zientoa 400.
- **Tipulak** zientoa 800.

## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

### ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

## koxkonta



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA



### Informatika: «Babestu zure intimitatea»

Egunez egun, informatika zabaltzen ari da gure artean eta egunez egun ere, he- dadura horrek dakarkigun ondorioetaz ohartzen ari gara. Hori dela eta, gure har- ridura gero eta haundiagoa da, kezkatzen gaituzten za- lantzak bezalaxe.

Informatikaren abantailei inork ez die uko egiten, bai- na abantailekin batera ara- zo aunitz sortu dira; bertze- ak bertze, eta batez ere, in- formatizatuak izan diren da- tu pertsonalak, oker egon daitezkeelako edo ezeza- gunen eskuetan daudelako.

#### 1992ko

#### LEGE ORGANIKOA

Guzti hori dela eta, 1992. urteko Lege Organikoak zaintzen du datu pertsona- len erabilera informatikoa. Lege honek dioenez:

- Gure datu pertsonalak era- bili ahal izateko gure ados- tasuna behar da.
- Egiazkoak ez diren datuak ezin dira gorde.
- Gure datu pertsonalak ezin dira erabili baimena eman dugun aferatik kanpo.
- Behin erabiliz gero, ezin izanen dira gorde.
- Eta eman behar diguten argibideari dagokionez,



Gure datu pertsonalak erabili ahal izateko gure adostasuna behar da

erranen digute gure datue- kin zer egingen duten, nori bidaliko dizkioten eta fi- txero horren arduradunaren izena jakinaraziko zaigu.

#### ZER EGIN HORI BETEARAZTEKO?

Eskubide hauek betearaz- teko eta legearekin batera, "Datuen Babeserako Agentzia" sortu zen, argi- bideak eman eta jendea ba-

*Gure datuak zuzentzea edo anulatzea eskatuz fitxeroaren arduradunarekin harremanetan jartzen ahal gara.*

besteko helburuak dituelarik.

#### NOLA EGIN?

Agentzia horren bitartez ezagutzen ahal dugu gure datuak gordetzen dituen fi- txeroko arduradunen hel- bideak. Fitxeroaren ardu- radunari eskutitza bidaliko diogu, gutaz duen datu guz- tiak eskatuz. Berak, hila- bete batean erantzun behar digu eta datuak eskura izan- da, berriz beregana joko du- gu datu horiek zuzendu edo anula ditzan. Bortz egune- ko epea izanen du hori egi- teko. Kasurik egiten ez ba- digu, Agentzian salatuko dugu. Agentzia ha, argibi- deak emateaz gain, legea betearazteko dago eta isu- nak ere jar ditzake.

MIKEL BEZUNARTEA  
IRATXE ELKARTEKOA

# AGEND EGUNEZ EGUN

## MENDI IRTEERAK

### ELIZONDO

► **Apirilaren 14an**  
Baztango Mendigoiz- zaleak Elizondo- Hondarribia ibilbidea.

► **Apirilaren 21ean**  
B. Mendigoizaleak 'Hamabi ordu euska- raz' eguna dela eta gazteen ibilaldiak.

## ANTZERKIA

### BERA

► **Apirilaren 13an**  
arratseko 8etan, 'Ya ves que preciosas es- tán las petunias' an- tzeslana eskainiko du Lamixine Berako An- tzerki Taldeak Kultur Etxean.

## KONTZERTUAK

### SUNBILLA

► **Apirilaren 13an**  
gaueko 11etan, Fon- dan 'King Mafrundi'.

► **Apirilaren 20an**  
11etan, Fondan 'Nahitanahiez'.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

► **Apirilaren 2tik maiatzaren 3 artio**  
Arizkunenean Juan Carlos Olaetxea pinto- re Beratarraren lanak.

## GUARDIAKO BOTIKAK

► **Apirilaren 8tik 14ra** Bera, Nabarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► **Apirilaren 15tik 21era** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

## CANAL+era ABONATZEA OPARI BAT DA

CANAL+era abonatu zaitetz eta opari gisara  
CANAL+eko egiazko kamiseta eramanez duzu



**B** RADIO  
BIDASOA

**CANAL+**

## ETXEBIZITZAK

**BETELU.** Baserria salgai, 7.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin. ☎ 234830.

**BERA.** Pisua salgai, egoera onean, hagitz ederra. Kafekazioa, armario enpotratuak eta sukalde ekipatua. ☎ 630686.

## DENETARIK

**Kartelak,** buzoiratzeko pa-perak, bisita txartelak, Fakturataloak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

**Parapente** bat, 301 markakoa, berria (20 hegaldi) salgai ekipo osoarekin. 150.000 pezeta. ☎ 637987 (gaueko 8etatik 10etara).

**Latinezko** klaseak hartu nahi ditut. ☎ 631499.

**Terrenoa** erosi nahi dugu Malerreka edo Baztanen. ☎ 393067.

Bigarren eskuko **sukaldea**, ahal bada gasa eta elektrikoa behar dut. ☎ 637836 (arratsaldeko 8,30etatik aitzinera).

**Borda** bat erosiko nuke bere terrenoarekin. ☎ 451774.

Battle markako **enpakadorea** salgai, arras ongi dagoena. 2,10 metro zabal. ☎ 592016 (Javier)

**Emakume-erlojua** galdu dut Beran martxoaren 8an,

Agerra auzotik Euskaldunako bidegurutzeraino tar-tean. ☎ 630253 eta 630177.

**BERA.** Bajera salgai Legia karrikan. 2.500.0000 pezeta. ☎ 630686.

**LESAKA.** Areto komertziala, herriaren erdi-erdian dagoena, eskualdatuko nuke. 140 m<sup>2</sup> ditu. Merke. ☎ 637050.

**Kongeladorea** erosiko nuke. ☎ 451774 (Nagore).

**Jangelako armairu** eder bat salgai. Gaztainekoa eta gaztela aldeko estilokoa. 2,80 zabal eta 2 m. altueran. ☎ 627654 arratsaldeko 7etatik goiti.

**Pago egurra** ttikitua eta idorra salgai. ☎ 610686.

Esnea hozteko **tankea** erosiko nuke. ☎ 627531 edo 908.778894.

## IBILGAILUAK

**Bi kotxe** salgai. Citroen C15 diesela, NA-AD matrikuladuna eta Opel Corsa 1.2 Superra, SS-W matrikuladuna. ☎ 510558 edo 510460.

**Audi** **VW** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

## MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

**Sekulako oferta:** Suzuki Vitara 5 ate, NA-AN, 3 hilabetekoa, 1.500 km. Suzukiak, Land Rover 88 Turbo, Peugeot 205. Bigarren eskuko autoak.

**Seat 127** salgai. 50.000 pezeta, egoera onean. ☎ 397032 (gaueko 10etatik aurrera).

**Citroen C15 Club** salgai, 7 urte eta 155.000 km., egoera onean, gasolinakoa. ☎ 393067.

Cota 310 **motoa** salgai, hagitz gutti ibilia eta prezio onean. ☎ 637040.

**Eremolkea** salgai, bi motatako suspentsioarekin, igeltsero edo mendi lanerako espeziala. Prezio onean. ☎ 908.776147.

## AZIENDAK

Mendiak birpopulatzeko **kon-nejoak** salgai Elgorriagan. ☎ 450952 (gaueko 8etatik aitzinera).

**Pastor aleman** arrazako zakur eme baten atzetik nabil, nere zakurrarekin elkartzeko. ☎ 637218 (egurditan).

**Pointer** arrazako ehizi xakurra salgai. 6 hilabetekoa. ☎ 637965 (Ilunabarretan).

## LANA

**Neska batek** lan eginen luke zaharrak eta haurrak zaintzen edo etxeko lanetan. Esperientziaduna. ☎ 637911 (Eduerne).

**Neska bat** behar da luñean lan egiteko (interna bezala). Interesaturik egonez gero, deitu ☎ 225210ra.

**Mikrofusio tailerra** osatzeko pertsona serioa bilatzen dut. Nik inbertsioa eta esperientzia paratzen dut eta zuk lokala (20 m<sup>2</sup> guttienez) eta laneko go-goa. Beran edo inguruan. Elkar ulertuko dugu. ☎ 07.33.59542317 (Jose Ignacio).

## AGURRAK

**Berako Toki Onako REM-eko** lehen kurtsoa neska baten partez, muxu bat Joni.

**Jose Angel Eskudero** eta osaba guztiak zoriondu nahi nituzke. Nagore Eskudero.

**Etxalarko Joseba O.:** ez zaitetz larritu, ez da deus gertatzen eta.

**Ezkurrako Ramona** Juantorenari: zorionak eta muxu haundi bat urtebetetze egunean (martxoak 19). Egun zorionsua opa diote Dorleta eta Xabierrek.

**Azpilkuetako Idoari:** zorionak zure urtebetetzean

eta ea txanpain pixko bat ematen diguzun. Zure lagun min batzuk.

**Bertizen** egon ziren mugairear, narbartear, zubietar eta doneztebarrei Aste Santuan berriro elkar ikustea espero dugu, baina oraingoan, lehen baino hobeki pasatzea espero dugu, nahiz eta zaila izan. Arras ongi pasatu genuelako. Berako lagunak.

**Oizko Alberto** eta Jabier San Migueleri zorionak eta urte askotarako bihotz bihotzez desiatzen diet. 8-2-76ren partez.

**Elbeteko Alejandro** Galarrigiri: zutaz maitemindurik nago. Arras ona zaude. Muxu goxo-goxoa ahoan, eta zorionak zure urtebetetze egunean zorionak. M.O.T.

**Ametz Lameirinhas:** apirilaren 5ean egun ona eta urtebetetze hobea pasa dezazun opa dizu zure familiak.

**Elizondoko Ana** Biartolari: apirilaren 2an partez zorionak, urte aunitzez. Ea gonbidatzen duzun zerbait hartzerat. Urdazubitik Alizia eta familiak

**Mikel Goienetxeri** zorionak bere 6. urtebetetzean (apirilak 3) eta muxu bat surdun puntan. Etxekoak.

**EKAITZA TABERNA**

Asteburuetan kontzertuak

Bokadilloak eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • ☎ 450991 • DONEZTEBE

**BIDASOA OPTIKA**

OPTIKO OPTOMETRISTAK

Nafarroa Ibilbidea, 21  
Tfnoa. (943) 63 01 93  
IRUN

- IKUSMENAREN AZTERKETA OROKORRA
- UKIPEN LENTEEN ADAPTATZIOA
- HAURRENTZAKO IKUSMEN TERAPIA
  - Estrabismoa
  - Begi Alferrak





# E Z K A L O

Jose Antonio Elizondo Jauna • APJ 129  
INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908.77 76 96 (Mugikorra)  
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



**Legasa.** • Luxuzko etxebizitza mobilizatua salgai 9.000.000 Pta. • 50m<sup>2</sup>ko bajera salgai 4.100.000 Pta.

**Narbarte.** • Baratztea duen etxea salgai. 7.500.000 Pta.

**Irurita.** • Borda 10.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai (4x4 autoarekin). • Luxuzko pisua garajearekin salgai. 12.500.000 Pta. • Hostal Baztan parean, etxebizitza garajea eta bi terrazekin alokatuko nuke (40.000 Pta/hilabetean) edo salduko nuke. 9.000.000 Pta.

**Ituren.** • Bista onak dituen borda salgai.

**Leitza.** • Borda salgai (4x4 autoaz).

**Etxalar.** • Baserria salgai. Badu kalefakzioa.



**Ezkurra.** • Bizitzeko jartzeko moduko etxea salgai. • Etxea lur eremuarekin salgai.

**Elgorriaga.** • Bizitzeko jartzeko moduko etxea salgai. • Etxe mobilizatua, garaje eta jardinarekin, alokatuko nuke. 50.000 Pta/hil. • 160m<sup>2</sup>ko bajera salgai.



**Doneztebe.** • Aparango azken pabilioia salgai. 150 m<sup>2</sup>. 59.000 Pta/m<sup>2</sup>+BEZa. • Zalduren gainean pisua salgai. • Bajera, bulego eta komunarekin alokatuko nuke. 50.000

Pta/hil. • 80m<sup>2</sup>ko bajera 100 m<sup>2</sup>ko baratzearekin. Prezio negoziag.



**Almendoz.** • Baserria 40.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai. Landetxe, sagardotegirako espeziala. Belateko tunel berriaren irteeran.

**Sunbilla.** • Luxuzko etxebizitza, sukalde ekipatuarekin. 9.000.000 Pta. negoziagarriak.




**Aurizberri-Espinal.** • Bizitzeko jartzeko moduko etxea salgai, bordarekin. 15.300.000 Pta.



**Baigorri.** • 140m<sup>2</sup>ko borda, bi solairu, ura, argia eta 1.200 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai.

**Elizondo.** • Lau pisu alokatzen ditut, hilabetean 20.000 Pta.tik goiti. • Saskaitez plazan pisu mobilizatua salgai. 9.500.000 Pta.

**Bera.** • Luxu handiko baserria salgai. • Luxuzko txaleta 900 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai.



**Ultzama.** • Borda lur eremuarekin iturri ondoan salgai. Iruñetik 30 km.

## JUAN LARREGI

BITXO

Santiago karrika, 10 • ☎ 58 08 98 • ELIZONDO

### HESI MOZTEKOAK



Motore elektrikoarekin

Gasolinazko motorea

### SOROPIL MOZTEKOAK



PROMOZIOA

### MOTO-AITZURRAK



PROMOZIOA

ORAIN  
70.000 Ptatik  
goiti

### SASI MOZTEKOAK




STHIL  
JON SERED  
eta marka Japoniarrak  
ere saltzen ditugu

HUSQUVARNA - PARTNER

PROMOZIOA

# 'TOKI ONA' INSTITUTUA BERA



## MATRIKULA ZAITEZ!

BORTZIRIETAN BIGARREN HEZKUNTZA EMATEKO  
BAIMENA DUEN BAKARRA

12 urtetan DBH (E.S.O.)

16 urtetan BATXILERGOAK

16 edo 18 urtetan:

### LANBIDE HEZIKETA BERRIA

– Mantenu Elektromekanikoa

– Komertzioa

### ERAIKI ZURE INSTITUTUA!

Euskalduna

Integratzailea

Pluralista

Berritzailea

Hezikidetzaila

Solidarioa

Autonoma

Demokratikoa

Bortziritarrentzat

**PARTE HARTU!**

Izena emateko: Apirilaren 15etik maiatzaren 6ra



**630411**